

...eta!
Kittoa!

2019-III-15



1092 zkia.

Bizitza bat mendi artean bidaiatuz

Agenda Helmet
MARTXOA MARZO

hello@helmethouse.es
943 849 310

BLAS ETXEBERRIA 1,
COLISEO ONDOAN!

  @helmethousestore

15-29 Ostirala

Salud

GESTIÓN EMOCIONAL EIDER PEREZ
18:00-20:00

22 Ostirala

Salud

YOGA EN FAMILIA LORENA CARNEVALI
18:30

23 Larunbata

Ocio

TALLER DE ALPARGATAS MANDIRA STUDIO
10:00-14:00

24 Igandea

Ocio

MUGISORMEN MUSIKALA TAILARRA KAXA
10:30-12:00 // 3-6 URTE 16:30-19:30 // 7-11 URTE

30-31 Larunbata-Igandea

Ocio

KANTU IKASTAROA NEREA GORRITI
10:30-13:30 // 5-8 edo 9-12

Asteazkenetan

Ocio

CURSO DIBUJO CREATIVO MANDIRA STUDIO
18:30-20:30 // Helduentzako

helmet house
hazteko

+ osasun gida

Dentistak



arat
Horts Klinika

"Horts osasuneko profesional taldea zure zerbitzura"

T. 943 20 18 51
info@clinicadentalarat.com
www.clinicadentalarat.com
Toribio Etxebarria 4-1, EIBAR

UniverSalud
Mutua, konpainia eta kolektibo handien itundutako zentroa



bista eder
clínica dental · horts klinika

Deitu | 943 70 00 82

bista eder, 19
www.bistaeder.es

Esku onetan egotearen ziurtasuna.
20.000tik gora paziente pozik.
Etorri eta egin irribarre berriz ere.



EIBAR ♦ HORTZ KLINIKA
CLÍNICA DENTAL

MAITANE G. IÑIGUEZ

Zerbitzu guztiak klinika berberan

San Agustín, 4 behea ezk. info@eibarclinicadental.com
943 537 076 - 688 884 808 www.eibarclinicadental.com

Pedro Etxebarria Gisasola
DENTISTA

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara
EGUNERO

Calbeton 19 - 3. ezk. Tfnoa: 943 20 72 17



GASTESI
Horts-Klinika

Odontologia orokorra eta prebentziozkoa / PADI
Ortodontzia / Inplanteak / Laser Teknologia

Errebal, 9-1. C 943 70 00 90 / 688 68 96 02



horts-klinika
B. IZAGIRRE
clínica dental

EGUNERO

Untzaga, 5 - 4. Tel. 943 70 23 85



IRAZABAL
clínica dental

Iribarreetan adituak
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxebarria, 12 - 1. Esk.
Tfnoa. 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com

MIGUEL SEMINARIO
ZURIARRAIN ODONTOLOGOA

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Inplanteak

Bidebarrieta, 7 - 1. esk. 943-702896

10 urte zurekin Eibarren

25 prestazio doan zuretzako

VITALDENT
Konpromisoa

San Juan, 7
943 821 885 - 690 628 731
www.vitaldent.com

Dietetika/Nutrizioa



NATUR HOUSE

Ainara Iriando Ansola
GIZA ELIKADURAN ETA
DIETETIKAN DIPLOMATUA

Toribio Etxebarria, 22
Mugikorra: 677 551 850

Errehabilitazioa



CRF AMOSTEGI
ERREHABILITAZIOA

- * Fisioterapia / Errekupeketa funtzionala
- * Min-Unitatea
- * Inkontinentzia urinarioak
- * Kirol medikuntza
- * Ama izeateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) San Ignacio 2 (ELGOIBAR)
Tfnoa. 943 20 34 46 Tfnoa. 943 74 33 74

Estetika klinika



abontza
clínica estética

Dr. J. Ramón Fdez. Ciudad

MEDIKUNTZA
ESTETIKOA

KIRURGIA
ESTETIKOA

Egiguren, 6 - behea 943 206 044

Fisioterapeutak



FISIOTERAPIA
ZENTRUA

ANE MENDIA
970 Kolegiatu zkia.

- INDIBATERAPIA
- KIROL LESIOAK
- DRENAJE LINFATIKOA
- POSTURA ZUZENKETA
- TRATAMENDUAK

ARRAQUETA, 20
TEL: 943 53 06 42
ane_mendia@hotmail.com

Ginekologia



GINECOLOGÍA
EIBAR

Dra. Laura Martínez
Dr. Alejandro Recas

Tel: 659 56 13 65
San Juan, 5 - 2. D
dr.recas@gmail.com
dra.martinezgallardo@gmail.com
www.ginecologiaeibar.com



Euskara Elkarteak

ARGITARATZAILEA:
...eta kitto! Euskara Elkarteak.

HELBIDEA:
Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:
943 20 67 76 / 943 20 09 18 /
603 598 285.

FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:
erredakzioa@etakitto.eus /
komunikabideak@etakitto.eus /
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK:
elkartea@etakitto.eus /
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:
Ana Aizpurua, Itziar Albizu,
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi
eta Silbia Hernandez

ADMINISTRAZIOA:
Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:
Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA:
Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
J.L. Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:
Malen Jainaga
eta Malen Illarramendi

HIZKUNTZA ARDURA:
Juan Andres Argoitia
eta Maider Aranberri

PUBLIZITATEA:
Itziar Albizu eta Belen Ulazia

TELEFONOAK: 943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA:
Juanjo San Sebastian

BANAKETA-ARDURA:
Mohammed El Ghabali

TIRADA: 8.150 ale

INPRIMATEGIA:
GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92.
ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!* k ez du bere gain hartzen aldizkarian
adierazitako esanen eta intzieren erantzunkizunik)



**Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza
Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria**



**EIBARKO
UDALA**



**GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)**

eskutitzak

– Venezuelarekin elkartasuna ez dute ixilduko! –

Venezuelak egoerari buruz martitzenean egindako hitzaldian jaso genuen eraso salatua nahi dugu ohar honen bitartez.

20 urtean Venezuelan bizi izan den Agustin Otxotorena gonbidatu genuen hitzaldia ematera gaur egun pil-pilean dagoen gaia dela baliatuz. Gure harridurarako, hasi baino minutu batzuk lehenago pertsona bat oihuka eta oldarka sartu zen aretora ekitaldia zapuztu nahian eta udaltzainek esku hartu behar izan zuten pertsona hori kanporatzeko.

Ekitaldiak iraun zuen bitartean, irain eta mehatxu artean kanpoan zegoen beste talde bat era bortitzean barrura sartzen saiatu zen. Zorionez, ez zuten lortu, eta hitzaldia ezusteko gehiago gabe garatu zen. Bide

batez, aretoa gainezka zegoela eta hitzaldiaren arrakasta azpimarratu nahiko genuke.

Iritzi politikoen arteko eztabaida baliagarria eta beharrezkoa dela deritzogu, errespetuz eta ezarritako arauak beteta egiten bada; baina, inola ere ez dugu onartuko horrelako erasorik. Are gutxiago elkarbanatu nahi izan dugun ikuspegia guztiz baztertua eta ixilaziazia denean komunikabide nagusien aldetik.

Horregatik, geureari eusten diogu. Kanpo injerentzia salatua eta Venezuelako herriari eta iraultza bolibartarrari elkartasun internazionalista adierazten jarraituko dugu.

Venezuela Aurrera!

Eibarko Sortu

– Delteco Eibar Triatloi Taldearen esker onak –

Aurreko zapatuan, martxoaren 9an, Gipuzkoako Duetloi Sprint txapelketa antolatu zuen Delteco Eibar Triatloi Taldeak Eibarko kaleetan, Eibarko XXVIII. duetloien barruan. Txapelketa garrantzitsua Gipuzkoa mailan eta gure herriko triatloilarien urteko plangintzan. Hala ere, txapelketa antolatzea ezinezkoa izango

zen urtero gurekin jarduten duten laguntzailerik gabe. Lerro hauen bitartez bihotz-bihotzez eskertu nahi diegu zapatuan euren laguntza eskaini ziguten guztiei, bereziki boluntarioei eta babesle guztiei, Eibarko Udalaren Udaltzaingoa eta Udal Brigadarekin batera.

Delteco Eibar Triatloi Taldea

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

MERKATARI.- Esangura figuratuan, ezkongai, errekaue egiteko prest dagoena. *"Merkatarixa agertu jako gure neskazaharrari".*

MIAU.- Katuaren hotsaren onomatopeia. *"Gau guztian miauka, teillatuetan zihar ibilli da gure katua".*

astean esanak

"Ez naiz asoziala, ezta antisistema ere; sistema honen aurka nago. Animaliak gogoko ditut orokorrean, batzuk gorrotatzeko motiboak eman badizkirate ere; gizakiak ez ditut hain gogoko, maitagarria den bat edo beste aurkitu dudan arren. Elkarrizketa batean esandakoa epaiketa batean defendituko ez nukeen moduan, eszenategian botatakoa serioa da niretzat. Mundu osoan izan dut arrakasta... Txinan ezetz? Zer galdu zait han? Botoa ematea ere probatu barik nuen; urriaren 1ean animatu eta ia aurpegia apurtu zidaten"

(ALBERT PLA, ABESLARIA)

"Badira urte batzuk Madrilgo erizain-laguntzailerik bat ebolarekin kutsatu zela. Hiltzeko arriskuan egon zen asteetan. Ezetz gogoratu haren izena? Teresa Romero. Bere txakurrarena igual bai? Excalibur. Teresa bizi da, baina txakurra exekutatu egin zuten, kutsatzeko arriskurengatik. Deigarria egin zitzaidan Donostian ehundaka lagun kalera irtetzea exekuzioaren aurka, bitartean Afrikan ehundaka hiltzen zirenean ebolak kutsatuta. Heriotz horiek naturalak balira bezala. Ba, gaur egun Kongon bizi duten ebolaren kimu berria historiako handiena da eta gutako inork ez dio horri erreparatu. Txakurrik ez dagoelako ete da?"

(IÑAKI EGAÑA, HISTORIAGILEA)

"Ikerketek erakutsi dute larrialdi egoera batean dagoen pertsona batek laguntza jasotzeko aukerak gutxiagotu egiten direla inguruan lekuko gehiago daudenean, lekuko bakarra dagoenean baino. Hau da, zerbait gertatzen bazaigu jende ugari dabilen kale batean, laguntza jasotzeko ditugun aukerak urriagoak izango dira kalean bizpahiru pertsona ibiliko balira baino. Lekuko ugari daudenean, bestea laguntzeko erantzukizuna ikusle guztien artean banatzen da; ikusle arduragabe bihurtzen gara, laguntza ez ematearen gaizkide. Beti lagundu genezake: galdetu eta interesa agertuz, ondoan egonik edo laguntza topatzen laguntzen"

(SAIDA AGINAKO, PSIKOTERAPEUTA)



IDURRE IRIONDO

Elorrixan zuhaitzak landatzera juateko deia

Azken urtietan bezela, aurten be zuhaitz landaketia egingo dabe Elorrixan (Itziar-Deba bittarteko lurretan), Itziar Auzo Udalak, Lizarbe Guraso Elkarteak eta Euskal Kostaldeko Geoparkeak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntasunarekin antolatu daben egitasman. Ekimenaren helburua bikoitza dala diñue antolatzaillak: *“Biotopoen eremuan bertoko basua eta paisajia berreskuratzea eta, horrekin batera, ingurumenari lotutako baloriekin jendia heztia, ume eta gaztien parte-hartzia modu berezixan sustatuta”*. Guztira, 150 bat zuhaitz eta zuhaixka landatuko dira jabego publikoko lursailletan, holan aurreko urtietan egindako landaketak osatuta. Horrez gain, galzorixan dagozen heskerak (lursailak banatzeko zuhaixkekin sortutako mugak edo hesiak) sortzeko landaketak be egingo dira, iazko saiakeriari jarraituta. Zuhaitzak Aldundixak jarriko dittu. Hitzordua 09:30xetan



ipiñi dabe, Elorrixa auzoko Galarreta gaiñian. Landaketia 12:30xak arte izango da eta, behin biharrak amaituta, parte hartzen daben guztieri hamarretakua emongo detse Lauhazeta alkartian. Antolatzaillak herritar guztiak parte hartzera animau nahi dittue.

Hazilan programarako izen-emotia zabaldu dabe

Langabezixan dagozen eta goi maillako ikasketak dittuen 20 eta 44 urte bittartekoeri zuzenduta dagan Hazilan programan izena emoteko epia zabaldu dabe Debege-sakuak. Hórrek lagunok biharrian hastia nahi daben egitasma seigarren ediziñora aillegau da eta, parte hartzen dabenak prestakuntza pertsonalizatua jasoko dabe, euren gaitasunak hobetzeko, holan biharrian hastia errezagua izateko. Gaiñera, enpresetan praktikak egitteko aukeria izango dabe, lan mundua bertatik bertara ezagutu deixen. Interesa dakeneri programaren xehetasunak azaltzeko eta zalantzak argitzeko asmuarekin, informaziño saiua egingo dabe martxuaren 28xan,



11:00etan, Armerixa Eskolan, ABIAN Lanbide Heziketa Azokaren baitan. Izen-emotia www.debegesa.eus webguniaren bittartez egin leike. Arduradunak emondako datuen arabera, oin arte egin diran bost ediziñuetan 66 lagunek hartu dabe parte (39 andra eta 27 gizon), eta horretatik 41 lagunek biharra topau eben sei hillebeteko epian.



Alkategaixa aurkezteko ekitaldixa

Gaur arratsaldian, 18:30xetan Gorka Errasti, Eibarko EH Bilduren alkategaixaren aurkezpena egitteko ekitaldixa egingo dabe Eibarko Bizikleta Plazan (eurixa egin ezker, Portaleko areto nagusixan). Ekitaldixan solasaldixa eta musikia egongo dira eta Juan Karlos Izagirre, Gipuzkoako Ahaldu Nagusirako hautagaixak be hartuko dau parte. Amaitzian, pintxuak eta edarixak eskinduko dittue Bilgunian.



Lore, Landare eta Zuhaitz Azokia egingo da bixar Urkizun

Debemenen eta Udalaren eskutik, bixar goizian Lore, Landare eta Zuhaitz Azokia egingo da Urkizuko parkian, 09:00etatik 14:00etara. Aurreko urtiotan lez, oinguan be erakusketa eta salmentarako postuak egongo dira eta, horrekin batera, 11:30xetan landaren inguruko taillarra hasiko dabe. Oinguan azokan parte hartuko dabenak honek dira: Viveiros el Montañes (Tafalla), usain-bedar eta apaintzeko lorekin; Zunoyar Lorategia (Oiartzun), apaintzeko eta bildumarako landarekin; Islaya (Oiartzun), kaktusekin; Ortuberri (lurreta) baratzerako lan-

dare eta lorekin; Aritzsurengo Tienduka (Nafarroa), kosmetika naturalarekin; Flores Ganchillo (Nafarroa), lore-itxurako pitxixekin; Lore Prentsatua (Donostia), lehortutako lorekin egindako kuadruekin; Semillas Ecologicas (Lasarte), sukaldatzeko hazi eta bedarrekin; Oiaralda (Zamudio), sendabedarrekin; Sojo Natura (Lekunberri), kosmetika naturalarekin; Sara Letamendia (Aizarna), kosmetika naturalarekin; Tissus Artisautza (Atxondo), banbu, eukalipto... oiñarixetan kapsulatutako lore lehorrak; eta Aranburu (Usurbil), lore eta landariekin.

autuan

"TUPPER-SEX FEMINISTA ETA IPUIN EROTIKOAK" EGUENIAN

Aurten 15 urte betetzen ditu Andretxeak eta, hori ospatzeko, datorren asteko egunerako ekitaldi berezixa antolatu dabe: "Tupper-sex feminista eta ipuin erotikoak" izeneko jardueria 17:00etatik 20:00etara izango da, Portalean (ikastaro gelan), eta saiaua gidatzen Inma Merino sexologuak eta Virginia Imaz ipuin-kontalari eta klownak jardungo dabe. Andrendako bakarrik antolatu dabe jardueria eta sarrera duan izango da.



J. Etxeberria, 13 TEL: 943 700 230

R.P.S. 253/14



Audifonoak PILA BARIK





PROEGA Eguneko azokan salgai ipintzeko gauzak batuko dittue

PROEGA La Salle ikastetxeko GGKEiaren kanpaina astelehena abiatu eta hillaren 23ra bittartian garatuko dabe aurten. Azaldu dabenez, oinguan be kanpaina esker batutako laguntasuna Argentinara bideratuko dabe, hain zuzen be Eibarko Udalaren dirulaguntzari esker herrialde horretan, Cordoba hiriko Malvinas Argentinas auzuan dagan Hector Valdivielso Bigarren Hezkuntzako ikastetxia eraikitzeko erabiliko dabe.

Ekitaldia nagusixa martxuaren 23an Untzagan egingo dan PROEGA Eguna izango da: merkatu solidarixua, bidezko merkataritzako produktuen salmenta eta Isasiko Izartxo Taldiak antolatutako jokuak egingo dittue, bestiak beste. Ipiñiko daben azokarako jendiaren laguntasuna bihar dabe antolatzailiak. Horregaittik, erabiltzeko moduan egon arren jendiak baztertuta dazazen gauzak (kopiñak, komikiak, jostailuak, lepokuak, belarritakuak, poltsak...) Azittaingo ikastetxera eruateko eskatu dabe, horrek gero azokan salgai ipiñi ahal izateko. Gauzak batzeko azken eguna martxuaren 21a izango da.

asteko
2.125
datua

kontsulta atendidu zittuen 2018xan Kontsumitzaillien Informaziñorako Udal Buleguan: 1.337 buleguan bertan jaso eta erantzun zittuen, 467 telefono bittartez tramitau ziran eta beste 321, barriz, internet bidez. Kontsulta gehixenak (%36) telefonuaren eta argindarraren inguruak izan ziran.

Goi Argi alkartekuak domekan egingo dabe urteko batzarra

Urtero lez, aurten be ederki ospatu eben Aratoste Martizena Goi Argi alkartekuak: "Alkarrekin alfaldu, txanpanarekin topa egin eta kantau be egin genduan, poz-pozik eta datorren urtian errepikatzeko gogurekin". Domeka honetan, barriz, urteroko batzarra egingo dabe, baiña aurretik, 12:00xetan, San Andres elizan urtian zihar hil diran bazkidien aldeko mezia ospatuko dabe. Batzarra 18:30xetan hasiko da, Goi Argixan. Aurreko urteko kontuak eta 2019rako prebisiñua aurkeztu eta, jarraixan, oparixen zozketia eta emanaldixa hasiko dira eta juateko moduan daguazen bazkidieri mesedez batzarrera agertzeko eskatu detse.



Funeraria-Ehortzetxe Mugica

EIBAR **ELGOIBAR**

Beilatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27

Beilatokia: SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko erdialdean

Bulegoa Bidebarrieta, 20

24 orduko zerbitzu iraunkorra

☎ 943 20 19 51 www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze Taldea **GRUPO Funeuskadi**

San Andres Gozotegia

- **tartak**
- **enkarguak**
- **etxera**

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

Radio Eibar

CADENA **SER**

104,0 FM

Izadi

LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

Taillarra eta hitzaldixa antolatu ditu DYAk

Martxorako hainbat jarduera antolatu ditu DYako Irakaskuntza Eskoliak. Martxuaren 23an, 17:00etatik 19:00etara Bihotz-Biriketako Suspertze taillarra eskinduko dabe. Famelixan parte hartzeko aukeria egongo da (helduak eta 6 urtetik gorako hiru ume alkarrekin, gehixen jota) eta, diñuenez, *“bi ordutan, eta modu erreztatu eta praktikuan, bihotz-geldialdi bat identifikatzen eta horren aurrian zelan jokatu ikasiko dabe”*. Taillarrak 8 euro balixo dau (duan 17 urtetik beherakundako). Martxuaren 27xan, barriz, lehen sorospenen inguruko hitzaldixa emongo dabe, 19:00etatik 21:00etara. Larrialdixen edo istripuen aurrian zer egin eta zer ez egin jakin nahi dabenendako hitzaldixa duan izango da, baiña plaza kopurua mugatu egingo dabe. Saiuan hainbat gai azalduko ditue: ittolarririk, zauririk, erredurak, traumatismuak, bularreko miñak, derramiak, konorte galerak...



Jarduera bixak DYaren Ordezkaritzan (Pagaegi, 5) izango dira. Izena emoteko edo informaziño gehixago eskatzeko 943 46 46 22 telefono zenbakira deittu leike edo interneten begiratu (www.DYagipuzkoa.com).

Armerixa Eskolakuen batzar orokorra atiak zabalik egingo dabe

Martxuaren 29xan egingo dabe Armerixa Eskolakuen batzar orokorra eta, bazkidiendako ezeze, jua nahi daben guztiendako atiak zabalik egongo dira. Izan be, egindako proiektuak eta 2019ra begira aurreikusten diranak aurkeztiaz gain, eskolaren proiektura babesak erakartzia nahi dabe. Esandakuen arabera, *“alkartiar transformaziñuaren hauspo eta zabalik dagan barrikuntza organo baten moduan funtzionatzen dau. Horretarako, bestiak beste, zuzendaritza organuetan enpresak toki gehixago betetzia bultzatu da eta gaur egun %60a ordezkatzen dabe.*



Oin momentuan, guztira 10.405 bihargin dituen 66 enpresa bazkide ditugu, 8 elkarte kolaboratzaile izatiaz gain”. Ekitaldixan Juan Carlos Cubeirok *“Talentualdia: Creacion, Desarrollo y Fidelización del Talento en nuestras empresas y organizaciones”* izenburuko hitzaldixa emongo dau eta, ondoren, Ainhoa Aizpuru, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko Diputatu Nagusiak itxiko dau batzarra. Parte hartu nahi dabenak aurretik izena emon biharko dau, 943 20 32 44 telefonora deittuta edo elkartea@armeriaeskoia.eus helbidera idatzita.

EGITARAUA

Topagunea (09:30)

Eibarko Klub Deportiboan
(T. Etxebarria, 16)

Ibilbidea (09:30/10:30)

Denok elkarrekin egingo dugu
1,5 km-ko igoera oinez, Iturburu
ikastolaren ondoko Eztiagaraino

OINEZ JOATEN EZ DIRENAK
ZUZENEAN JOAN DAITEZKE
EZTIAGARAINO 10:30EAN

Tailerra eta Landaketa (10:30/12:00)

Lau motatako 40 zuhaitz
landatuko ditugu guztion artean

Hamaiketakoa (12:00/13:00)

Lana egin ondoren
indarrak berreskuratzeko

Ibilbidea (13:00/14:00)

Jaitsiera Eibarrera

Basoak: gure babesle

- Airea garbitzen dute
- Aldaketa klimatikoari aurre egiten diote
- Biodibertsitate iturri dira
- Fruituak ematen dizkigute
- Euri ura xurgatzen dute
- Airea iragazten dute
- Zarata gutxitzen dute
- Itzala ematen dute
- Egurra eta energia ematen digute
- Gure bizi kalitatea hobetzen dute

Zer landatuko dugu domekan?

- Lizarra
- Haritza
- Gorostia
- Urkia

Zuhaitz Eguna

igandean
Martxuaren
24an





ARGAZKIAK:
Ekhi Belar

Emakumeek kaleak hartu zituzten eguna

Euskal Herriko Mugimendu Feministak Martxoaren 8rako egindako greba deialdiak "jarraipen masiboa izan du", egunaren inguruko balorazioa egiteko astelehenean Donostiako Emakumeen Etxean egin zuten agerraldian esandakoaren arabera: "Zenbaezina da herriak kalea hartzean duen indarra, horregatik ez dago zifrarik martxoaren 8an gertatutakoa jasoko duenik. Aurten, arrakasta kuantitatiboaz gain, jauzi kualitatiboa eman dugu gure aldarrikapenak eta oinarri politiko feminista, antikapitalista eta antiarrazistak sendotu ditugulako. Gainera, M8ko greba feminista nazioartekoa izan da, 140tik gora batu baikara borroka egun honetara. Zorionak modu batean edo bestean hori posible egin dugun guztioi". Eibarko M8 Plataformak egunerako prestatu zuen egitarauak egun osoa bete zuen eta, eguerdiko elkarretaratzearrakkastatsua izan bazen, iluntzeko manifestazioan emakumeek herriko kaleak hartu zituzten eta euren aldarriak ozen entzun ahal izan ziren eguneko 24 orduetan.

EGUNEKO ARGAZKIAK IKUSTEKO: etakitto.eus/mediateka





martxoak 27, 28 eta 29

V. GILDA

LEHIAKETA



PARTE-HARTZAILEAK:

AKARA - AMESTI - AMETSA - ARKUPE - ASTELENA
 BACOLEKU (URKIZU) - BAISI - BARATZE - BIRJIÑAPE
 BOULEVARD - CEPA - DOS DE MAYO - GASTROGILDA
 GURIDI - ITURRI - KONTENT - KOSKOR - KULTU
 O'JAYS - PAULANER - SLOW - SU BEROA

SARI BI

1 Herritarren saria: **150€**

Tabernetan bozketarako kutzak eta orriak egongo dira.

2 Epaimahaiaren saria: **150€**

EPAIMAHAIKIDEAK:

Mireia Alonso - Josu Mugerza - Iñigo Kortabitarte

Bozketan parte hartzen dutenen artean
ASTEBURUKO EGONALDIA
 zozketatuko da **BI LAGUNENTZAT**.
Animatu zaitetz eta parte hartu!!!

Antolatzailea



Euskara Elkarte

Laguntzaileak



Gipuzkoako Foru Aldundia

Martitzen arratsaldean Venezuelari buruzko hitzaldia eman zuen Agustin Otxotorenak Arrate Kultur Elkartearen, Eibarko Sorturen eskutik, baina ekitaldia hasi baino lehen ezohiko egoera gertatu zen: hitzaldira joandakoen artean eserita zegoen Maduroren erregimenaren kontrako emakume bat hizlariari jotzen ahalegindu eta hitzaldirako erabili behar zuten ordenagailuko kableak bere tokitik atera zituen. Aldamenean zeudenek Eibarren bizi den emakume venezuelarrari joateko eskatu zioten; baina, alde egiteko asmorik ez zuela ikusita, Udaltzaingora deitu eta haiek atera zuten kalera, identifikazioa egin eta gertatutakoaren inguruko akta betetzeko. Liskarra alde batera lagata, Otxotorenaren hitzaldiak interes handia eragin zuen eta Arrate Kultur Elkarte txiki geratu zen.



Venezuelako errealitatera gerturatu nahian

Gaur egun Venezuelari zer ari den gertatzen ulertu ahal izateko, Otxotorenak historiari erreposoa egiten ekin zion solasaldiari: *"Ez dugu ahaztu behar Venezuela espainiar konkistatzaileen menpe egon zela eta, herriak 1512ko inbasioaz libratzea lortu bazuen ere, ondoren terratenienteak nagusitu ziren eta herria miseriarra kondenatu zuten".* XX. mendean hasieran, berriz, petrolioak aurkitu zuten eta egoerak okerrera egin zuen, *"aurkikuntzak petrolera yankiak erakarri zituelako. Orduko diktadoreak petrolioaren legea yankientzat propio egin zuen".* Mundu mailan petrolio esportatzaile nagusia izan zen Venezuela 1929tik 1970era bitartean, *"eta erosle nagusia, jakina, Amerikako Estatu Batuak".* Otxotorenak dioenez, oligarkiak herrialdea saldu zuen, *"herriak gehienek kaltetan. Ni ailegatu nintzenez, oligarkia horretako 300.000 familia Miami tokirik eskusiboenean bizi ziren. Eta ezin dugu ahaztu euskal jatorriko venezuelar asko ere aberastuta itzuli zirela Euskal Herrira".*

Venezuela OPEPeko kide egin zen 70. hamarkadan eta dirutza lortu zuen, *"baina dolarra oso merke ipini eta bolivarraren balorea asko igo zuten. Ondorioz, herrialdean gehiengoak diren langile-klasekoak izugarri pobretu ziren, atzerrira joateko aukera zutenek dirutza egiten zuten bitartean".* Horrekin etorri zen krisiak herriak asko ezer barik laga zituen: *"Alper eta Gaizkileen Legea egin zuten. Pobreek baimena behar zuten auzo aberatsenetan ibiltzeko eta, baimen barik harrapatuz gero, kontzentrazio-eremu batera eramaten zituzten".*


Egoera larria zen benetan eta, horren aurrean, 1989an herritarrak kalera irten ziren, *"Caracazo" izenarekin ezagutzen diren protestak egitera, "eta orduan Carlos Andres Perez presidenteak ejerzittoa kale-etara bidali zuen, herritarrak hiltzera. Lau egunetan milaka lagun hil zituzten eta zauri horrek zabalik jarraitzen du oraindik ere".*

1994an finantza sistemak porrot egin zuen egun batetik bestera eta dirua herriatik kanpora eraman zuten. *"Fabrika asko itxi zituzten, langabezia izugarri hazi zen...*

venezuelarren %25k ez zuen lanik, kontu korronterik, bozkatzeko eskubiderik, nor-tasun agirik... ofizialki, milioika herritar ez ziren existitzen".

Eta orduan, 1994 inguruan, Hugo Chavez azaldu zen, *"hori aldatzeko asmoarekin".* Otxotorenak dioenez, *"ordura arte lasai asko bizi ziren venezuelar aberats horiek sutan jarri zituen horrek, hortik dator lehen Chavezen eta orain Maduroren kontra duten gorroto hori. Inork ezin dezake ukatu, baina, OPEP-i kendutako diruarekin ezer ez zuten herritarrei etxeak, hezkuntza, osasun-zerbitzuak eta beste hamaika gauza eman ez zienik".*

Otxotorenaren berbetan, *"laranja kaja batera igo eta Guaidok bere burua presidente izendatu zuenean, Estatu Batuek eta bere menpeko gobernuek, Espainia tartean, Guaido onartu zuten, baina ez dakite nolakoak diren venezuelarrak. Mundu osoko komunikabideek kontrako irudia ematen ahalegintzen diren arren, herria Madurorekin dago eta laster ahaztuko dira Guaidorekin".*



MARIA LUISA RUIZ DE EGUINO

(II. urteurrena: 2017-III-6)

JUAN OSÉS BIENZOBAS

(VIII. urteurrena: 2011-II-17)

EUREN ALDEKO MEZA EGINGO DA
MARTXOAREN 19AN (MARTITZENA),
ARRATSALDEKO 19:00ETAN, SAN ANDRES PARROKIAN.

"Beti nire bihotzean"

NEREA





Migratzaileak, ahalduntzea eta abegikortasuna euskararentzat giltzarri

Martitzenean goizeko 9:00etan hasi zen ...eta kitto! Euskara Elkarreak antolatutako "IX. Euskararen Transmisioari buruzko Mintegia", Portaleko Areto Nagusian. Euskarari buruzko hainbat datu, egitasmo eta gogoeta partekatu ziren hizlarien eta entzutera joan zirenen artean. Hitzaldi-sorta amaituta, Jaime Altunak gidatutako mahainguruarekin amaitu zen ekitaldia, 14:30ak aldera.



Aurkezpenean Estibaliz Alkorta (Eusko Jaurlaritzza), Maider Aranberri (...eta kitto! Euskara Elkarrea) eta Garbiñe Mendizabal (Gipuzkoako Foru Aldundia).

Gorka Moreno (Ikuspegi):

“Gakoa bigarren belaunaldietan dago”



Parte-hartzaileen artean Gorka Moreno Ikuspegi – Immigrazioaren Euskal Behatokiko zuzendaria izan genuen mintegian. 2004. urtean hasi zuen bere ibilbidea Ikuspegik. Urte hauetan zehar, gauza ororen gainetik, EAEko atzerriko immigrazioaren alorrean ikerketa-tresna publikoa eraikitzea izan dute helburu nagusi. Azken urteetako argazkia erabat aldatu dela azaldu zuen Gorkak, “iraultza gertatu da euskararen ezagutzaren aldetik. Transmisioa bermatzea lortzen badugu asko aldatuko da datozen urteetako panorama. Beste erronka bat etorkinen integrazioa izango da. Hauek euskarari egin ahal dioten ekarpena oso handia izango da. Kolorea eta bizia emango diote euskarari”. Ikerketek eta datuek adierazten dutenez, euskararen garapenerako bidean, euskal gizarteak ez du immigrazioa arrisku bat bezala ikusten, eta **%64k uste du etorkin guztiak euskara dohainik ikasteko aukera izan behar harko luketela**; beraz, jarrera irekia begibistakoa da. Bestalde, etorkinen seme-alaba gehienek D ereduaren ikasten dutela azpimarratu zuen Ikuspegiko zuzendariak.

Etorkinei geure buruari baino gehiago ezin diegu eskatu Gorkaren esanetan: “Euskaraz ikasiko duten etorkinen kopurua mugatua izango da (beste etorkin batzuekin gertatu zen bezala eta bertoko hainbatekin gertatu den bezala). Nahi duenak baliabideak eta aukera guztiak izan behar ditu, baina erreallismoarekin joka dezagun. Ikasketan zentratu beharrean, gehiago inbertituko nuke sentsibilizazio kanpainetan, euren seme-alaben igogailu sozialerako euskara garrantzitsua dela ondo azaltzeko. Igogailu sozialerako tresna da euskara eta horrela erakarri behar ditugu etorkinak eta euren familiak. Mugikortasun soziala bigarren belaunaldiarekin etorriko da, hor dago gakoa”. Euskara ereduari buruz eta eskola publiko/kontzertatuei buruz hitz egiten dugunean klase sozialei buruz ari garela uste du Gorkak. “Eskolak estatusa ematen dizu, kokapen soziala, eta hori diruarekin lotuta dago. Etorkinak euren klase sozialeko eskoletara joaten dira eta hau ulertzekoa da. Denok saiatzen gara antzekoekin egoten arlo sozio-ekonomiko zein linguistikoan”.

Irati Labaien eta Imanol Zabaleta (EuskarAbentura):

“EuskarAbenturaren helburuetako bat gazteen artean euskararen erabilera eragitea da”

lazko abentura errepikatuz, 2019ko uztailaren 1ean EuskarAbentura espedizioa osatuko dute 150 lagunek – 16-17 urte bitarteko 120 gazte eta 30 helduz osatutako lan-taldea. Maulen batuko dira abenturari hasiera emateko. Done Jakue bide desberdinak jarraituz Euskal Herria zeharkatuko dute. Getxo izango dute helmuga, uztailaren 31n. Imanol Zabaleta eta Irati Labaienek azaldu zuten, “parte hartzeko gazte bakoitzak lan bat eta motibazio gutun bat egin behar izan du. Eusko Ikaskuntzak zuzentzen ditu lanak. Lan onenak egiten diduzten horiek izango dira aukeratuak. Beka bat irabaziko dute eta ez dute ezer ordainduko. Eta horretaz aparte bermatu nahi dugu lurralde guztietako jendea egongo dela. Helburua, lehenik eta behin, izenak esaten duen moduan, euskararen erabilera sustatzea da. Horrez gain, gazte euskaldunen artean sare bat sortzeko helburua dago: errealtate linguistiko desberdinetatik datozenak, oso euskaldunak eta hain euskaldunak ez diren inguruetako jendea ba-

**Idoia Etxeberria
(Badihardugu Euskara Elkarte):**

“Ahotsak.eus-en jasotakoa ikasgeletara eramaten ari gara”



Ahotsak.eus proiektuaren gainean jardun zuen Badihardugu-ko Idoia Etxeberriak. Euskal Herriko ahozko ondarea eta herri hizkerak bildu eta hedatzen ditu ahotsa.eus-ek (353 herri, 5.897 hizlari eta 53.521 bideo-parte). Horren barruan, **Ahotsak IKASGELAN** proiektua landu dute, ahozko ondarea, memoria historikoa eta transmisioa ikasgelan lantzeko materiala. 150 bideo-fitxa baino gehiago prestatu dituzte, hainbat adin eta mailatako ikasleentzat: “Ahotsak.eus proiektuan jasotakoa ikasgeletara eramaten ari gara, hainbat alor landuz: euskara, kanta-jolasak, oroimen historikoa, bizikidetzak, genero ikuspegia... Irakasleei eta ikasleei material osagarria emateko helburuarekin, hainbat bideo-fitxa prestatu ditugu: kanta-jolasak eta gaikako bideoak”. Euskalkitegia atala ere badago, euskalkiak eta hizkerak desberdintzeko jolasa. Euskalkitegiaren APP bat dago mugikorretatik jolasteko. Bestalde “Gazte gara gazte” egitasmoaren berri eman zuen Idoiak, “Euskal Herriko gazteei elkarriketak egin dizkiegu, batez ere bi gai lantzeko: aisialdia eta hizkuntza. Gazteek euskaraz erabiltzen duten gazte hizkeraren euskal hiztegia ere egin dugu”. Ahotsak.eus-en beste proiektu bat **101L** izenekoa da. Bere helburua Euskal Herrian hitz egiten diren hizkuntzen aniztasuna eta aniztasun kulturala ezagutaraztea da. Jatorri askotako pertsonak elkarriketatu dituzte eta “hizkuntzekin batera euren esperientziak eta iritziak jasotzen ditugu, batez ere 3 gairen inguruan: eleaniztasuna, emigrazioa eta integrazioa”.



tzen ahalegintzen gara. Hirugarren helburua Euskal Herriaren ezagutza da (historia, kultura, geografia, gizateriaren ondareak...). Eta, azkenik, baloreak lantzen ditugu”. Denera 783 kilometro dira. Aurteko urtean, kilometro horietatik 500 inguru egin ziren oinez. Proiektuaren helburuak zehaztuta, hutsetik ekin zioten EuskarAbentura Espedizioaren prestaketari, “proiektua aurrera eramateko sosis ez genuen, beraz, esku artean geneukana proiektuaren potentziala eta taldeko kideon curriculum vitaeak ziren, besterik ez (elkartean 10 lagun gaude). Hau guztia aurrera eramateko ezinbestekoa dugu erakunde publiko zein pribatuaren babesa. Horrez gain, antolaketa lanetan eta baita Espedizioan zehar ere, iaz lagun mordoa izan genituen bidaide, musutruk eta beti irribarre batekin gurekin lanean aritu zirenak”. Gazteei bizipen sakon eta aberasgarri bat emateaz gain, oso ondorio positiboak ateratu dituzte euskararen erabilera eta motibazioari dagokionez.

Josune Herrarte eta Esti Irureta (Zumaiaiko Udaleko euskara eta turismo teknikariak):

“Turisten artean euskara eta euskal kulturaren interesa handitzen zihoala ikusita sortu dugu *Euskal Enigma* bisita gidatua”



Euskal Kostaldeko Geoparkeak ‘Enigma bizia’ bisita gidatua eskaintzen du Zumaian. Hain zuzen, Zumaiaiko Udalak sustatu eta hizkuntza ardatz hartuta, bisita Zumaian egitea planteatzen dute. Bisita gidatuaren gidoiak Kike Amonarriz soziolinguista arduratu da. Esti Irureta Zumaiaiko Udaleko turismo saileko arduraduna da eta bere esanetan “*bisitari eta turisten artean euskara eta euskal kulturaren interesa handitzen zihoala ikusi genuen. Udaleko euskara eta turismo sailak elkarlanean hasi ginen. Euskara hizkuntza bizia eta modernoa dela adierazi nahi genuen, eta modu harriarri batean kontatu. Kike Amonarrizekin harremanetan jarri ginen eta esan beharra dago bere inplikazioa % 150koa izan dela, izugarria!*”.

Zumaiaiko alde zaharrean egiten den bisita gidatu honetan, euskal kulturaren, hizkuntzaren, mitologiaren, kirolaren eta tradizioen alderdirik ezezagunenak deskubritu ahal dira. Gainera, antzinako arrain salmenta aretoa ezagutzeko aukera dago eta elkarte gastronomiko batean pintxo bat dastatzen dute bisitariak. Ibilbidean txistua, txapela eta pilota bezalako elementuak erabiltzen dira. Batez ere Estatuko bistarientzat da. Beraz, bisita erderaz egiten da.

Josune Herrarte Udaleko euskara teknikariak esan zuen ‘Enigma bizia’ ekimenak oihartzun handia izan duela herritarren artean: “*Argi dago transmisioa hainbat norabidetan egin daitekeela, barrutik kanpora eta kanpotik barrura. Jakina da Zumaian flyschari balioa ematen hasi zaiola kanpokoak etortzen hasi direnean, eta uste dugu gauza bera gertatuko dela ekimen honekin!*”.

Petra Elser (Banaiz Bagara elkarteak):

“Politika berriak eta neurri zehatzak behar direla uste dut”

Petra Elser alemaniar euskaldunak Banaiz Bagara elkarteak sortu zuen 2009an, euskara eta mi-grazioa lotuz. Etorkinei euskaraz trebatzeaz arduratzen da. Petrarentzat migratzaileak aukera bat dira euskal komunitatearentzat, hiztun berriak eta munduko kultur aniztasunak euskaraz bizitzeko. Etorkinen artean lan mundurako euskarazko trebakuntza ikastaroak ematen hasi ziren Banaiz Bagara elkarteak, ostalaritza eta adinekoen zaintzaren arloko ikasketak, hain zuzen. Petrarentzat oso garrantzitsua da etorkin helduekin lan egitea, “*etorkinek etortzen jarraituko dute. Ez badugu euren lan egiten, euskara ikasi gabe eta euskaldunen komunitatera gerturatu gabe biziko dira heldu hauek, eta horrela ez dugu lortuko nahasketa!*”.

Euskararen gaian, Petraren ustez, gakoa da nola ikusten dugun hizkuntza, zertarako erabili nahi dugun, zein hizkuntzan nahi dugun bizi. “*Gizarte bezala lotzen gaituen hizkuntza gaztelania da. Gaztelaniaz funtzionatzen da eta euskaldun bezala hazten saiatu behar dugu, gure komunitatea gero eta handiagoa izateko, horretarako*

Jokin Uranga (UEMA):

“Udalerri euskaldunetako gazteak euskararen inguruan ahalduntzeko ekimena da *Salto!*”

UEMA Udalerri euskaldunen mankomunitatea Aizarnazabalen sortu zen 1991an, herritar orok bizitza publiko zein pribatuan euskaraz egin ahal izateko. Faktore sozioekonomiko eta soziokulturalen eraginez udalerri euskaldunak gero eta erdaldunagoak direla ondorioztatu zuen 2011an egindako inkestak eta “*hiru ildo estrategiko finkatu ziren: udalerri euskaldunen erabateko hizkuntza normalizazioa lortzea, udalerri euskaldunetako herritarrak sentsibilizatzeko, eta udalerri euskaldunak osatzen duten euskararen arnagunea saretu eta zaintzea!*”, azaldu zuen Jokin Urangak. Hezkuntza proiektu desberdinak jarri zituzten martxan. Gazteak materiala lantzen gustora egoten ziren, baina “*modu informalean gustorago egoten zirela ikusi genuen!*”.

Hori dela eta, udalerri euskaldunetako gazteen udalekuak antolatu zituzten orain dela bi urte Orion, eta iaz Sastarrainen egon ziren. Aurtengoa hirugarren edizioa izango da. “*Formatoa aldatu dugu, Usurbildik abiatuko gara ekainaren 26an, hainbat lekutatik pasatu eta Arantzán amaituko dugu ekainaren 30ean. Udalerri euskaldunetako gazteak euskararen inguruan sentsibilizatzeko, kontzientziatzeko, ahalduntzeko eta eragile aktibo bihurtzeko asmoz antolatutako ekimena da Salto!*”.



beste komunitateetako pertsonak erakarriz. Beharrezkoa ikusten dut gizarte euskalduna irudikatzea eta horra heltzeko lan egitea. Nola egin lan? Politikak aldatu behar dira eta lana leku guztietan egin behar da, lan mota asko eta desberdinak!”.

Neurri zehatzak behar direla uste du, beraz, Petrak. “*Euskalgintzak eta euskal klase politikoak serio hartu behar dute migrazioaren arloa hizkuntza politikan. Etorkinen integrazio-ibilbide linguistikoak lagunduta egon behar du. Helduen Hezkuntzan (EPA) beste eredu bat behar da, hor dago gakoa. Bertan euskaraz ikasi beharko lukete, eta ez da egiten. Eta gero, ikasi ondoren, bizitza profesional eta pertsonalean laguntza linguistikoa eskaini beharko litzateke. Hau da, hizkuntza ikastea ez da amaitzen nonberak lanpostu bat aurkitu duenean. Bestetik, euskaltegiak helduen hezkuntzarekin homologatzea beste neurri bat litzateke!*”.

*iratxe muñoz*

Maila baxuetan berdintasunetik hurbil gauden arren, erantzukizun zientifiko handiko postu gorenetao karguetan gizonetzkoak dira nagusi

Berdintasunetik hurbilago

Astebete beranduago bada ere, emakumearen egunari keinu bat egiteko aprobeztatu nahiko nuke, zientziaren aldetik. Horren harira, ikerlari bat marrazteko eskatuko banizue, nolakoa izango litzateke? Galdera hau ardatz hartuta, AEB-ko ikerketa talde batek, zientzian genero ikuspegiaren aldaketa aztertu nahi izan du, ume eta gazteen arteko pertzepzioak alderatuz denbora tarte luze bat kontuan izanik (Child Development, DOI: 10.1111/cdev.13039). Horretarako, 20860 marrazki bildu dituzte, 5 eta 18 urte bitarteko ume eta gazteetan, azken bost hamarkadetan zehar. Ikerketaren lehen datuak 60 eta 70. hamarkadetan jaso ziren. Marrazkietan emakumezko ikerlaria %0,6k soilik erakusten bazuen ere, azken hamarkadetan zehar kopurua handiagotuz joan da %28raino iritsiz.

Hori horrela, zientzia gizonetzkoekin lotzen duten estereotipoak ahulduz doazela ondorioztatatu dute, emakumeen presentziaren igoerarekin noski, nahiz eta zientziaren arlo askotan ez nabaritu. Bestalde, umeen adina handitu ahala, gizonetzkoen marrazki gehiago zenbatu dituzte (%80 inguru), orokorrean inguruko estereotipoek eraginda. Zoritxarrez, gizarteak



Child Development aldizkari zientifikoan argitaratu den ikerlanaren marrazkietako bat.

gaur gaurkoz erakusten duen desoreka handia da eta, komunikabide zein elkarrekintza sozialetan.

Gurera itzuliz, Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitate Ministerioak kaleratu duen azken txostenean ikus dezakegu maila baxuetan berdintasunetik hurbil gauden arren, erantzukizun zientifiko handiko eta unibertsitateko postu gorenetao karguetan gizonetzkoak aurkitzen direla, gehiengo batean. Arlo honetako genero-estereotipoei aurre egiteko, badira hainbat proiektu martxan gazteen artean eta bereziki neskei zuzenduak, bokazio zientifiko-teknologikoak sustatzeko. Horietako bat, "Debarrena STEM" izenekoa, Debegesa eta Elhuyarren arteko elkarlanean egin da. Honen bidez zientzian eta teknologian, emakumeak erreferente

badirela ikusarazi nahi izan dute.

Izan ere, berdintasunera iristeko bidea erakitzen dagoen gizarte honetan, aldaketak errotik hasi behar dira. Beraz, Martxoaren 8tik haratago, jarrai dezagun egunez egun, emakumearen lana agerian jartzen, estereotipoak hautsiz, gazteen interes eta bokazioek mugarik izan ez dezaten.

*asier ezenarro*

Galdetzen diogu euskaldunok gure buruari ze demontre daukagun irabazteko horrelako estatu batean, besteek egindako arauekin?

Hauteskundeak

Zenbat aldiz entzun ditugu horrelakoak: "Komunismoa oso ona da teorian, baina praktikan porrot handi bat izan da". Egia da gauza bat dela guk geure buruan daukaguna eta, gero, hori praktikara eramatea. Baina, zergatik ez dute esaten gauza berbera demokrazia liberalerik buruz? Gauza bat da Montesquieuk, Lockek eta Rousseauk idatzi zutena eta, gero, errealitatean ikusten duguna. Demokrazia=Hauteskundeak buruko ariketa egiten badugu, India da munduan demokrazia haundiena, bertako gehienak premia gorrrian bizi diren arren. Edo Kolonia bera. Hegoamerikako herrialde horretan 80. eta 90. hamarkadetan *Unión Patriota* ezkerreko alderdi politikoaren 3.000 kide hil zituzten.

Baina egin dezagun ariketa hori, Demokrazia=Hauteskundeak. Jarri gaitzen liberalismoaren teorian. Nola funtzionatzen du Estatu espainolak? Inigo Bullain EHUKo irakasleak askotan azaldu duen bezala, hemen trantsizioan estatuaren egitura politikoa

egin zenean, iruzur haundia egin zen. Hauteskunde legeak lantako lurraldeen ordezkartza saritzen zuen (eskuineko botoak) eta Euskal Herrian, adibidez, Arabak duen ordezkartza Gipuzkoa eta Bizkaiaren bera da, 25 legebiltzarkide, askoz boto gutxiagoekin lortuta.

Demokrazia ordezkagarriaren ikuspuntutik ere, Espainian dagoena "*Oligarquía de partidos*" bat da, Antonio Garcia Trevijanoren esanetan. Eta, gainera, Euskadiko eta Kataluniako alderdi abertzaleak joko zikin horretan murgiltzera behartuta daude.

Eta apirilean datozen hauteskundeetan Espainiako hiruko eskuina "botere berreskuratze" gogoarekin dator, ezkertiar, komunista eta abertzaleen aurka. Galdetzen diogu euskaldunok gure buruari ze demontre daukagun irabazteko horrelako estatu batean? Ez dugu ezer egitekorik besteek egindako arauekin mugitzen garen bitartean.

KIROLA BIZILAGUN

MARTXOA



GAZTEON!

...ETA KITTO!

Egilea: Malen Illarramendi

ANDER ROMARATE

KIROLA BIZILAGUN

24 urte baino ez dituen arren, ibilbide luzea egin du Romaratek kirolaren munduan. Txiki-txikitatik osatu dute banaezineko bikotea igeriketak eta Anderrek. Eibarko igerilekuan eman zituen lehen kirol-urratsak eta bertan egindako lan jarraituari esker, Joko Paralinpikoetara iristea lortu zuen, emaitza bikainak lortuz gainera. Ikasketak ere kirol arlotik bideratu zituen; izan ere, Kirol Zientziak Gradua egin zuen, eta baita masterra ere. Une honetan tesia egiten ari da errendimendura begirako ikerkuntza bat aurrera ateratzeko. Lanean ari da, batetik, entrenatzaile gisa; eta, bestetik, futbol inklusiboaren atalean zuzendari gisa Eibar Kirol Elkartean.



Erreportaje honetan bere esperientzia eta bizipenak partekatu nahi ditu gurekin Anderrek. Oso oroitzapen onak ditu Eibarraren entrenatzen igarotako urteez: “Oso lan-giro ona zeguan taldean eta, gaiñera, emaitza onak lortzen nittuanez, horrek be laguntzen zetan aurrera jarraitzen, egindako lanaren fruitua ikusten nebalako”. Hala ere, bizitzan orokorrean gertatzen den legez, oro ez da urre, eta beheraldia eta une gogorak ere bizi izan ditu kirolari eibartarrak. Ez dugu ahaztu behar goi errendimenduko kirola beti dela zorrotza, eta “ordu asko ematen ditzuzu igerilekuan eta gimnasixuan bakarrik, eta igeriketa oso kirol fisikua da. Egun guztia entrenatzen pasatu eta gero, emaitzak ez diranian espero ditzuzunak, une gogorak bizi izaten dira eta egoera horretatik etaratzia ez da erreza”.

Ikasi bitartean, Anderrek beti izan du argi nora bideratu nahi zuen bere lana: entrenamendu mundura. Hori horrela, Eibar Kirol Elkartean kudeatzaile eta zuzendari gisa ari da desgaitasuna duten pertsonekin osatutako bi futbol-talderekin,

eta, horrez gain, entrenatzaile lanetan ere badihardu: “nere kontura erresistentzia-kiroletan diharduten kirolarixak entrenatzen ditudut: triatletak, txirrindularixak, igerilarixak... horixe da gehixen gustatzen jatana, ni be mundu horretan ibilittakua naitenez, ondo ezagutzen ditudalak txapelketen mundua, kirolariekiko tratua...” Beste kirolari batzuk entrenatzeko orduan, onartzen du ikasitakoa eta ikeritutakoa oso baliagarriak egiten zaizkiola, baina gehien laguntzen diona bere esperientzia pertsonala dela uste du. “Kirolari horrek biziko dabena nik nere azalian bizi izan dot eta, bai, teoria hor dago, baina kirolari bakoitza pertsona bat da eta norberaren berezitasunetara egokitzea da garrantzitsuena”.

Aipatutako lanez gain, hainbat gairen inguruko hitzaldiak eta ikastaroak ere ematen ditu Anderrek, Markel Alberdi igerilariarekin batera. “Kirol-zientzien ingurukoak eta ikerkuntzarekin lotutakoak dira neri gehixen gustatzen jatazenak, azken batian, ni mundu horretan mugitzen naizelako. Baiña, jendiaren artian, nere bizipe-



Ander Romarate

nekin lotutako hitzaldixak oso arrakastatsuak dira, desgaitasuna eta kirolaren arteko harremana interesgarria dalako”. Urte eta erdi inguru daramate horretan, bolada batzuetan beste batzuetan baino gehiago, lanaren arabera, eta euren esperientzia aberasgarria izan daitekeela uste dute, euren entzundakoak jendeak bere egunerokotasunean aplikatzeko modukoak izan daitezkeelako.

Bere lanaren zabalkundea egiteko sare sozialak erabiltzen dituela dio Romaratek,





batez ere Instagram, eta onartzen du jendearengana edota beste kirolari batzuegana iristeko modu egokia iruditzen zaiola; izan ere, egiten dituen gauzak erakusteko eta, era berean, izen edo prestigio bat lortzeko balio dezakeela dio. Hala ere, aitortzen du une honetan kirolari ugari dituela bere ardurapean eta dibulgazio-lana egitera mugatzen dela, alegia, kirolak osasunarekin duen lotura estua ikusita, eta horrek duen garrantzia aintzat hartuta, aholkuak eta jarraibideak ematen ditu gauzak ondo egiteko, arriskuak saihesteko etab.

Gauza jakina da kirolean oso garrantzitsua dela konstantzia, etenik gabeko lana, alegia. Baina zailena ere horixe da. Anderren iritziz, kontu honetan funtsezkoa da aukeratutako kirola gustukoa izatea benetan, batetik, eta, bestetik, bakoitzaren egoerara edo momentura ondoen egokitzen dena hautatzea. “Helburuak eta bakoitzaren egoerak edo errealidadiak bat egin bihar dabe, bestela eziñezkua da ondo ataratzia, eta errazagua da alde batera lagatzia. Esaterako, egunian zortzi ordu lan egin, lagunekin urten eta Iron

man bat prestatzia ez dira bateragarriak izango, eta egoera horretan egonda, beste helburu batzuk jarri biharko dira, errealaguak, egingarriaguak”.

Zaila da kirolaz hitz egitea sexismoa aipatu gabe. Anderrek argi dauka: “Kirola bizitzaren isla edo ispillua da, eta gizartian sexismua badago, kirolian be bai. Modalidadiaren arabera, gaiñera, haundixagua da”. Igeriketan, esaterako, desberdintasuna ez dela hain handia esaten du, baina “herrialdiaren edo txapelketaren arabera, adibidez, alde haundixak ikusten dira, zoritxarrez. Egoera aldatzeko lan gehixago egin biharko litzakela uste dot, ze gizartian aldaketa gertatu ezker, kirolian be igarriko da”.

Etorkizunera begira, esku artean dituen lanak indartzea eta aurrera ateratzea du helburu: desgaitasuna duten gero eta pertsona gehiagok kirola egiteko lanetan jarraitzea eta goi errendimenduko kirolarien bidaide izatea.

ERREPORTAJEA ONLINE

Protagonistaren hitzak gertuagotik ezagutu nahi badituzu, edota irakurri beharrean nahiago baduzu bideoz ikusi... ez ezazue galdu YOUTUBE-n “gazteOn! eta kitto” kanelan dagoen bideoa.

Hona hemen esteka:

<https://youtu.be/R4zfN6z4vno>

20 urteko gazte eibartarra da Andrea Garcia. Arte Ederrak ikasten ditu Bilbon, eta aldi berean, musikari eta abeslaria ere bada.

Zeintzuk dira zure gaitasun artistikoak?

Marrazketa txiki-txikia nintzenetik gustatu zait, beti izan dut gustuko marrazkiak egitea. Orain dela 2 urte inguru enkarguak egiten hasi nintzen, eta jendeak eskatutako erretratuak marrazten ditut. Horrez gain, 5 urte nituenetik gaur egun arte dantza (balleta) egiten dut. Dantzak arazo guztiak ahazten laguntzen dit eta asko disfrutatzen dut. Baina oraintxe bertan gehien motibatzen nauena musika da. Oso gaztea nintzenetik izan da musika nire bizitzaren alderdi nagusi bat, baina 2018-2019 ikasurtean konturatu naiz benetan musikak niretzat zenbaterainoko garrantzia daukan.

Kontaiguzu Operación Triunfoko esperientzia...

Casting-aren lehenengo eta bigarren faseak Donostian izan ziren, eta biak pasatu nituen. Azkeneko casting-ak egiteko Bartzelonara joan bihar izan nintzen hiru egunetarako, baina ez nuen OTko akademian sartzea lortu. Hala ere, oso pozik nago, lagun pila bat egin nituen, eta akademia barruan egon den jendea pertsonalki ezagutzeko aukera eduki nuen.



Bago!az-eko programan parte hartzen ari zara...



Egia esan, nik ez nuen programa hau ezagutzen, baina nirekin harremanetan jarri ziren eta kastingera joaten animatu nintzen. Pare bat aste pasatu ostean deitu zidaten esateko onartua izan nintzela saioan. Telebistako platoa ezagutu nuen lehenengo aldi txundituta geratu nintzen; oso handia zen, sentsazio arraroa neukan... Baina grabaketa-asteak pasatzen doazen heinean, ni ere ohitzen noa eta gero eta erosoago sentitzen naiz. Hemendik jendea animatu nahiko

nuke Bago!az ikustera, (eguztenero, gaueko 22:30ean eta barixakuetan 21:00etan), oso saio dibertigarria eta entretenigarria da-eta.

Nun ikusten duzu zeure burua etorkizunean?

Etorkizunera begira musika mundu honetan jarraitzea gustatuko litzaidake, betiere arte-mundua ahaztu gabe. Uste dut oso gaztea naizela eta ibilbide luzea daukadala oraindik aurretik. Beraz, asko-asko ikastea eta disfrutatzea tokatzen zait orain.

Protagonistaren hitzak gertuagotik ezagutu nahi badituzu: https://youtu.be/hM3cewAJ_-o



German Andueza ez du Eibar FT-ren partidurik galtzen. Baina ez da neurketak ikustera mugatzen. Partiduaren aurreko eta osteko gai asko izaten ditu esku artean eta berari dagokio horietako asko antolatzea. Klubaren irudia ere ondo zaintzen du eta saiatzen da, ahal den neurrian, mundu guztiari gauzak errazten. Hamalau denboraldi egin ditu delegatu karguan eta Eibar FT-ren sasoi arrakastatsuen bizi izan du.

GERMAN ANDUEZA (Eibar FT-ko delegatua): "Epaileek txartel bakar bat ere ez didate atera"

German Andueza 2005-06 denboraldian hasi zuen bere ibilbidea ordezkari edo delegatu moduan Eibar FT-n. "Denboraldiko azken jardunaldia zen, Eibar-Jerez partiduan, Ajaren tokia hartu nuenean berak ezkontza zuelako egun horretan". Orduan ere Mendilibar zen entrenatzailea, denboraldi bikaina burutu ondoren 1. Mailara igotzeko azken aukeraren aurrean. "Eta Gaizka Garitano zen kapitaina. Javi Perezek deitu zidan postua hartzeko proposatuz. Eta nire debuteko partidua telebistaz eskaini zuten, 18:30ean". Karguaz jabetzeko ez zuen, beraz, karnetik aurkeztu behar izan: "Zazpi urte egin nituen kirol ordezkari Ermuko San Lorenzo ikastetxean". Eta alebinak entrenatzen ere hiru urte jardun zuen.

Kargu horretan diharduten gehienak jokalariei eta epaile-ohiak badira ere, ez da hori Andueza kasua. Bera eta Leganesekoa dira foball munduaren kanpotik kargu horretara heldu direnak. Hala ere, ibil-

bide eredugarria egin du urte guzti haue-
tan: "Txartel bakar bat ere ez didate atera
inoiz". Hori gutxi balitz, taldea 1. Mailara
igo zen denboraldian delegatu onena izen-
datu zuten. Saritu zuten ekitaldian Quini
Sporting-eko delegatua ezagutu zuen (2.
Mailako onena izan zen asturiarra) eta lo-
tura berezia du harekin: "Hil zenean bere
semeak esan zidan biok geunden argazkia
zuela eskegita bere logelan".

Ipuruako partiduetan zelai eta talde-de-
legatu funtzioak betetzen ditu: "Epaileak
jasotzen ditut, partidua hasi baino bi ordu
lehenago, eta eurei laguntzen ahalegin-
tzen naiz, non jan dezaketen eta horrela-
koak lotzen. Hamaikakoak jasotzen dituen
fitxak ere entregatu behar izaten ditut,
partidua hasi baino 75 minutu lehenago.
Isilune minuturik edo beste ezer balego,
hori ere jakinarazi behar diet; gonbidape-
nak banatu behar izaten ditut...". Eta kan-
poko partiduetan? "Hor bidaiaren ardura-
duna naiz. Orokorrean Premier Bidaiak-
eko Anerrekin lotzen ditut hotelak, miste-
rren aholkuei jarraituta, hau da, zelaitik
gertuen dagoena bilatuz. Logelak bana-
tzen ditut, ordutegiak finkatu... jendea
erosoen egon dadin".

Jaz Zubiaurren egiten du lan eta enpre-
san eskaini dizkieten erraztasunak esker-
tzen ditu, arratsaldeak libre ditu-eta. Le-
hen Mailara igotzean, hiru urtean egun er-
diz jardun zuen. "Enpresarekin negoziatu
eta orain badaramat urte eta erdi jornada
osoz, baina arratsaldero Ipuruan egoten
naiz". Laguntzailea ere badu, Josu Etxe-
berria arrasatearra. Taldean atzerritarrak
izanik, bisatuak direla-eta, eginbeharra ere
zaildu egin zaie: "Kanpotik datozeinei eu-
ren familiekin-eta gurera hobetoen mol-
datzen lagundu behar diegu".

Eta epaileak ere "koipetu egin behar di-
rela" uste du eta euren lana erraztu, "ahal
den neurrian". Mendilibarren taldeen be-



rezitasun baten berri beste taldearen de-
legatuari ematea ere berari dagokio: "Guk
baloirik ez dugula botako gogoratzen
diet". VAR ez du txarto ikusten, bidezkoa-
goa delakoan dago, "nahiz eta baduen zer
hobetu: azkarragoa izan beharko luke eta
jendearentzako ulerterrazagoa". Lehen
Mailan jokoa "askoz ere taktikoagoa, az-
karragoa da, estrategiazko gol asko izaten
da". Uste horretakoa da "Messi bezala-
korik ikusi ez duen" Andueza. Hala ere, Ei-
bar urte askotarako ikusten du goi mailan,
"kluba bikain egokitu delako".

Eibar taldeak pozteko motibo asko
eman dizkio, batez ere "igoeretan, jakina.
Ondo gogoratzen dut Manixekin eta Arriola-
rekin 2. Mailara igo genuenean. Gero,
zelan ez, Hospitaleten eta Ipuruan bertan
izandako igoera biak, jarraian. Une txarrik
ez dut gogoratzen... jaitsiera bat izan dai-
teke". Mendilibarren jokalariekin taldea
egiteko duen ahalmena gorai patzen du
Germanek. Aspalditik da Eibar FT-ren baz-
kide eta ez daki ondo noiz arte jarraituko
duen karguan, kalkulu batzuk atera baditu
ere: "Aurrejubilatzen naizenean lagatzeko
pentsatzen hasteko sasoi izan daiteke,
2020-21 denboraldiaren amaieran edo".
Bitartean, "jende interesgarria" ezagutzen
jarraituko du.



Errugbilarien oso debut arrakastatsua Ohorezko B Mailan

Emakumezkoen Eibar Rugby Taldeak indartsu ekin zion Ohorezko B Mailako ligari aurreko domekan 53-10 irabazita Lugoko Murallari. Iparraldeko A Multzoan beste bi partidu izango dituzte zain eibartarrek hurrengo bi asteburuetan, Bartzelonan lehenengoa eta bigarrena Valladoliden. Galiziarrek gogor egin zieten aurre, baina atsedenaldirako Eibar Rugby Taldeak 41-0 agintzen zuen markagailuan eta bigarren zatia parekatuagoa izan zen. Taldean “*azken unean defentsan izandako akatsak*” zuzentzean zentratuko dira hurrengo partiduei aurre egiteko. Berri txarren artean, Carolina Hernandezek eta Magdalena Adoverrek izandako lesioak daude. Ea lehenbailehen errekuperatzen diren!



Andoni Isusi Espainiako txapeldun elur gaineko txakur-krosean

Baqueira Bereten jokaturako elur gaineko mushing Espainiako txapelketan Eibartik joandako ordezkari bakarrak txapela jantzi zuen jokaturako proba bien amaieran. Andoni Isusi Balto txakurrarekin aurkeztu zen lur gaineko Espainiako Kopako probetan maila bikaina erakutsi ondoren. Zapatuan jokaturako mangan oso atzean irten ziren, baina helmugara bigarren postuan heldu ziren, irabazlearengandik segundo gutxira. Horrela, domeka goizean adoretzu ekin zioten probari eta, elurra gogorrago zegoela aprobetxatuz, lehenak izan ziren helmugan bigarrenari alde handiagoa kendu eta txapela jantzeko.



Ttatt gimnasioko ordezkariak bost domina irabazi zituzten Espainiako wu-shu txapelketan

Urrezkoak izan ziren bi, Iker Azkaratek eta Sergio Osuak eskuraturakoak (biak ere 65 kilotik beherako mailan: Quing Da eta Sanda modalitateetan, hurrenez hurren); beste bat zilarrezkoa, Mikel Astigarragarentzat, hori 70tik beherako mailan; eta Andoni Morgaderek eta Geaxi Moredak lortutako brontzezkoak, aurrenekoak 90 kilotik behera eta bigarrenak 60tik. Uzta ikusgarria, beraz, Ramon Quinaren aginduetara kirol horretan aurrera egin duten Ttatt-ekoek bildutakoa Espainiako 33. wu-shu txapelketan.



Kalamuako hiru judoka izan ziren Hiroshi Katanishiren ikastaroan

Madrilgo Villaviciosa de Odonen European Judo Batasunak eskainitako ikastaroan izan ziren Manu Agirre (judo 8. dana), Pedro Guerra (7. dana) eta Julio Gallego (6. dana) Kalamuako irakasleak, guztira 175 judoken artean. European hainbat urtetako lana egin duen Hiroshi Katanishi (8. dana) hemendik aurrera bera ordezkaturako duen Tatsuto Shimarekin izan zen ikastaroa ematen. Katanishi Frantziako judo selekzioaren entrenatzailea da eta Suitzan bizi da egun.

Aitziber Urkiola, Pello Osoro eta Delteco Gipuzkoako txapelkun Eibarko XVIII. Duatloian

Aurreko zapatuan jokatu-ko Eibarko Duatloian 18. edizioan Delteco Eibar Triatloi Taldeko ordezkariak lan bikaina egin zuten eta, jokoan zegoen Gipuzkoako duatloi sprint txapelketan, taldekako txapela bereganatu zuten. Horrez gain, talde bereko Pello Osoro eta Saltokiko kamiseta-ekin parte hartu zuen Aitziber Urkiolak, biak eibartarrak, Gipuzkoako txapela jantzi zuten.



Deltecok zortzikoa aurkeztu zuen, Pello eta Txomin Osoro kartel-buru gisa zuela, eta beste bi eibartar izan ziren proban beste elastiko batzuekin (Aitziber Urkiola Saltokirekin eta Maialen Zamakola Arabatirekin). Bost kilometro antxixiketan, 18 bizikletan eta beste bi eta erdi antxixiketan egin ondoren, Joanes Goitisolok, Javier Goitiak eta Adur Eskisabelek osatu zuten podiuma gizonetakoan, eta Andrea Medierok, Aitziber Urkiolak eta Miren Josune Bikuñak emakumezkoetan. Pello Osoro seigarren izan zen, Txomin Osoro 11. eta Gipuzkoako azpitxapelkun 23 urtetik azpikoen artean, eta atzerago sailkatu ziren Pello Berrizbeitia (33), Andoni Mayo (58), Roberto Gartzia (77), Alex Higuera (116) eta Gaizka Altuna (151 eta 6. junior mailan) taldekideak. Deltecoko Kristina Ruiz hirugarren izan zen beterrano 1 mailan eta Arabatricko Maialen Zamakola 12. postuan helmugaratu zen, 23 urtetik azpikoen artean onena izateko.



Urpekaritzako ikastaroa hasiko da astelehenean

Eibarko Klub Deportiboko ur-azpiko jarduera batzordeak urtero antolatzen duen urpekaritzan hasteko izar bateko ikastaroa abiatuko du hilaren 18an. Ikastaro horretan kirol buzero operazioak egiteko eta uretan murgitzerakoan urpekaritza ibilbideak egiteko jakin beharrekoak eskainiko dira. Interesatuak helbide honetara jo dezakete: subacuaticas@deporeibar.com

Gisasolatarrak nagusi berriro ere Diana elkarteko ehiza txapelketan

Jose Luis eta Iñigo Gisasola aita-semeak irabazi zuten aurreko zapatuan Zambranako inguruetan jokatu-ko txapelketa. Debabarrenerako txapelketan parte hartzeko Diana ehi-



za eta arrantza elkarteak antolatutako sailkapen probak 26 partaide izan zituen eta Iñigo Gisasola nagusitu zen seniorretan, sei eperrekin, Oswald Gallastegiren (lau eper eta galeperra) eta Enrike Isasiren aurretik (lau eper). Beteranoetan Jose Luis izan zen onena, bost eperrekin. Aipatu-ko laurak sailkatu dira irailen jokatu-ko Debabarre-ko kanporaketarako.

ASTEBURUKO AGENDA

FOBALLA

1. Maila

Eibar - Valladolid (domeka, 12:00)

Emakumezkoen 2. Maila

Eibar - Oiartzun (zapatua, 11:30)

2. B Maila

Vitoria - Gernika (zapatua, 17:00)

Ohorezko Erregional Maila

Bergara - Eibar (zapatua, 16:30)

1. Erregionala

Axular - Urki (zapatua, 19:30)

Eibartarrak - Elgoibar (zapatua, 15:45)

JUBENILAK

Ohorezko Maila Nazionala

Eibar - Osasuna (zapatua, 13:45)

Euskal Liga

Eibar B - Olarizu (domeka, 17:45)

KADETEAK

Euskal Liga

Alaves - Eibar (zapatua, 18:00)

ESKUBALOA

1. Nazional Maila

St. Casablanca - Somos (zapatua, 20:00)

Gipuzkoako 1. Maila

SoraluzeBergara - Haritza (zapatua, 18:00)

ERRUGBIA

Ohorezko B Maila

Bera Bera - Avia Eibar (zapatua, 17:00)

Emakumezkoen Ohorezko B Maila

BUC - Avia Eibar (domeka, 12:00)

SASKIBALOA

2. Mailarako Igoera Fasea

Getariako - Avia Eibar (zapatua, 17:30)

WATERPOLOA

Euskal Herriko 1. Maila

Urbat IKE - Bidasoa XXI (barixakua, 21:45)

KIROL-AGENDA OSOA
etakitto.eus HELBIDEAN

asteburuko emaitza guztiak
astelehen goizerako

Deporreko batzar nagusia egingo da hilaren 22an

Datorren asteko barixakuan egingo dute Eibarko Klub Deportiboko urteroko ohiko batzarra. Bigarren deialdia arratsaldeko 19:30ean hasiko da eta jarraian izango den ez-ohiko batzar nagusia handik ordu laudenera hasiko da, hau da, 19:45ean. Ohiko batzarrean iazko ekintzen memoria, kontuen gorabeherak eta tabernaren kudeaketa aztertuko dira, galdera-eskarietara batera. Eta ez-ohiko batzar nagusiaren gai -ordenean Zuzendaritza Batzordeko hainbat kide aukeratuko dira: txirrindularitza, mendia, squash, kultura, argazkilaritza, artxiboa eta Kezka Dantza Taldekoak, hain zuzen.



PEDRO ARRIOLA: Udaberria Azitainen.

Mendiari lotutako bizitza izan du Juanjo San Sebastianek eta mendian jasotakoaren berri emango digu hilaren 20an, eguztena, 19:00etan Portalean. 'El viaje' izenburuko hitzaldia eskainiko du Bilboko alpinistak, igotako metro eta egindako kilometroetatik aparte, mendi arteko bidaietan bizitakoa kontatzeko. Sarrera doakoa izango da.

JUANJO SAN SEBASTIAN (alpinista):

“Esperientziak kontatzean ikasi duzunaz jabetzen zara”



- Nola hasi zen zure bidaia alpinismoaren munduan?

Nora eramango ninduen jakin gabe. Txikitari gurasoekin mendira joaten nintzen eta 15 urterekin eskalatzeko hasi nintzen eta ez nuen uste Atxarte edo Europako mendietatik haratago joango nintzenik. Zorionekoa izan naiz, aurretik jende gutxi joan izan zen tokietara joateko aukera eman zigun sasoi bizi nuelako. Toki horiek barkadadean gozatzeko aukera izan genuen.

- Sasoi hartatik gaur egunera aldatu egin da mendiaren inguruan duzun ikuspuntua?

Bai. Lehen informazio gutxi genuen. Toki batera joan nahi bagenuen, ez genuen erreferentzia handirik izaten eta, gainera, ezin ginen konparatu K2 edo Makalura gu baino lehenago joan zirenekin, ez genekielako nola eskalatzeko zuten, gu baino hobekak ziren ala ez... Ez genituen ezagutzen. Mendiak eskaintzen duten gauza interesgarri guztiak mantentzen genituen. Batetik, aitzindariak izan barik, mendietara joateko aukera genuen; eta bestetik, erreferentziarik ez genuenez, abentura bizitzen genuen.

- Denborak aurrera egin ahala erronka berriak aurkitzeko premia izan duzu?

Nire adinarekin ez nabil erronka berrien bila. K2 igotzen saiatu nintzen lehen alditik gailurrera heltzea lortu nuen arte 11 urte pasa ziren. Mendi batentzat 11 urte ez dira ezer, baina pertsona batentzat bai. Bidaiari batek bizitzan zehar izaten dituen

ikuspuntu aldaketei buruz egiten dut berba 'El viaje' hitzaldian. Bizitzeko momentu batean onenak izan nahi dugu eta horretarako edozer gauza egiteko prest gaude. Hilezkorra sentitzen zara. Gero, ikusten duzu ez zarela onena izan, baina bizitako esperientziei esker zure abileziak eta ahalmenak hobetzeko aukera izan duzula. Hilezkorra ez zarenez, denborak zure tokian jartzen dizu eta jakintsuagoa egiten zaitu.

- K2 eta Alpamayo mendiak zuretzat bereziak direla esan izan duzu. Zergatik?

Europatik kanpo eskalatu nuen lehen mendia Alpamayo izan zen. 25 urte nituen eta espedizio ahaztezina izan zen. 1979. urtea zen eta urtebete geroago Everestera joan ziren Martin Zabaleta (Pasang Temba sherparekin goraino iritsi zen bakarra), Felipe Uriarte, Juan Ignacio Lorente, An-



gel Rosen eta abarrekin joan nintzen. Nire heroiak ziren sasoi hartan. Bestetik, K2-ko istripuaren ondoren (San Sebastianekin gailurrera iritsi zen Atxo Apellaniz hil egin zen jaitsieran eta berak eskuko hainbat atzamar galdu zituen) pentsatzen nuen ez nintzela berriz mendira itzuliko, baina Alpamayon jatorria itzuli nintzen eta ihes egin zidala uste nuen mundu berri bat deskubritu nuen berriz.

- Mendiak urrutzeko beharra sentitu duzu inoiz?

Bai, urrundu naiz noizbait. K2-ko istripuaren ondoren urtebete baino gehiago egon nintzen eskalatu barik, 1994tik 1998ra ez nintzen Himalayara joan... Etxetik gertu egindako eskaladekin tartekatuta ditut gelditasunaldiak. Hala ere, beti ibili naiz alpinismoarekin zerikusia duen zerbaitekin egiten.

- Mendiaren bizitako esperientziak partekatzea gustatzen zaizu?

Alpamayo lehen aldiz igo nuenean gailurra ekarri nuen, baina bigarren aldian pare bat kontakizunekin etorri nintzen. Gainera, deskubritu nuen bidaia ez dela etxera itzultzean amaitzen, bidaia beste bati kontatzen diozunean baizik. Esperientziak kontatzen dituzunean ikasi duzunaz jabetzen zara.

- Bidaia berriak egiteko asmorik duzu?

Ez. Proiektu eta eskalada asko ditut egiteko, denak hemendik hurbil, eta buruko ideia guztiak ordenatu eta zerbaitekin idaztea gustatuko litzaidake.



3.325 eibartarrek hartu zuten parte Euskaraldian

Hiru hilabete pasa dira Euskaraldia egin zenetik, baina orain jakin ditugu euskararen inguruko ariketa sozial masibo honen inguruko parte-hartze datuak. Antolatzaileek behin baino gehiagotan azpimarratu zuten kantitatea baino kalitatea zela garrantzitsuena. Hau da, kontua ez zela Euskaraldian ahalik eta jende gehienek parte-hartzea, baizik eta parte-hartzen zutenek ariketa soziala ondo eta zintzo egitea. Hala ere, zifrak ikusita, egitasmoak herriaren babesa izan zuela esan daiteke, batez ere Bizkaia eta Gipuzkoan. Euskaraldiak 225.154 parte-hartzaile izan zituen eta Eibarren 3.825 lagunek hartu zuten parte.

“Koloretako munstroa” ipuin musikatua martxoaren 23an

Olga Sanchez musikaterapeutak eta Ane Lopez ipuin kontalaria “Koloretako munstroa” izenburuko ipuin musikatua eskainiko dute martxoaren 23an (zapatuan), 12:00etan, El Corte Ingleseko ekitaldi aretoan. “Kontari eta Kantari” programaren barruan egingo duten saioa 2-6 urteko haurrentzat pentsatuta dago, “gurasoekin batera tailerrean parte hartzera joan eta, ipuin entzuteaz gain, zuzeneko musikarekin gozatu dezaten”. Bizipentailerra Olga Sanchezek sortu du, eta haur literatura eta musika batzen ditu, sorkuntzazko esperientzia bati esker: “Ipuinarekin, txikienek beraien emozioak ezagutu eta adieraziko dituzte. Emozioez eta munstroaren koloreez gain, soinu harrigarriak sortzen dituzten hainbat musika-tresna izango dira. Instrumentuak probatzeko aukera emango zaie eta abesti bat ere ikasiko dute”.



Saioa euskeraz izango da, doan, baina parte hartu nahi dutenek aurretik izena eman beharko dute, 3. pisuan dagoen liburu sailean (plaza mugatuak).

Martxoaren 23an
LEGARREKO BERTSO BAZKARIA
LEGARREGAIN ELKARTEAN

BERTSOLARIAK:
MANU GOIOGANA/JOKIN BERGARA
Gai jartzailea: Desirée Magro
Ainhoa Azpiazu eta Jokin Hazas-ek girotuta

MENUA:
Entsalada, paella eta postrea.
(kafea eta txupitoxa barne)

HELDUAK 20€ UMEAK 10€

TXARTELAK BOLINTXON ETA LEGARREKO FRUTADENDAN SALCAI. (EROSTEKO AZKEN EGUNA MARTXOAREN 17AN)

Salgai daude Legarreko bertso-bazkarirako txartelak

Korrika Kulturalaren barruan, martxoaren 23rako bertso bazkaria antolatu dute Legarregain elkarteak. Bertsolariak Manu Goigana eta Jokin Bergara izango dira eta gai-jartzailea, berriz, Desirée Magro. Gainera, Ainhoa Azpiazuk eta Jokin Hazasek girotuko dute ekitaldia. Bazkaltzeko entsalada, paella eta postrea (kafea eta txupitoxa barne) emango dituzte eta txartelak Bolintxon eta Legarreko frutadendan ipini dituzte salgai (20 eurotan helduentzat eta 10 eurotan umeentzat). Txartelak erosteko azken eguna domeka (martxoak 17) izango da.

Joan Mimoren eta Deportiboko artxiboko argazkiak tabernetan

Klub Deportiboko Argazki Taldearen eskutik, martxoaren 31ra arte ikusgai egongo diren hiru argazki erakusketa zabaldu dituzte: El Ambigu tabernan Joan Mimoren lanak ikus daitezke eta Portalea jatetxean eta Deporren, berriz, “Eibarko Klub Deportiboko artxiboa” izenburukoak.

Eguen Zurirako lanak, gaur arte

Gaur arte jasoko dituzte XXII. Eguen Zuri Argazki Lehiaketarako lanak Arrate Kultur Elkarte-koek. Lehiaketa nahi duten guztientzat zabalik dago eta zuri-beltzean zein koloretan egindako argazkiekin har daiteke parte (egile bakoitzak gehienez hiru lan aurkeztu ditzake, JPG formatuan). Lanak emailaz jasoko dituzte, eguenzuri2019@gmail.com helbidean, eta argazkiekin batera egilearen datuak (izen-abizenak, NAN, helbidea, telefono zenbakia, e-maila eta argazkiaren zenbakia eta izenburua) bidali beharko dira. Informazio gehiago nahi izanez gero, Arrate Kultur Elkartearen bulegoan galdetu, 638284912 telefono zenbakira deitu edo arratekultu@gmail.com helbidera idatzi daiteke.





Apirileko emanaldietarako prestatzen ari dira Sostoakoak

Atsedean barik, lanean martxa betean hasi dute urtea Sostoa abesbatzako kideek, datozen hilabeteetan egingo dituzten kontzertuak prestatzen. Azaldu dutenez, *"entsaiatzeko errepertorio ezberdinak dituzten hiru programa txandaka tartekatzen gabiltza"*. Gertuen daukaten hitzordua apirilaren 11koa da. Egun horretan, Kezka dantza taldeak antolatuta Coliseoan 20:30ean hasiko den topaketa kulturalen parte hartzen izango dira, Eibarko Koru Gaztearekin eta Northern Harmony (AEB) abesbatzarekin batera. Bi egun geroago, apirilaren 13an, Karmengo Amaren elizan kontzertu sakroa eskainiko dute, urtero lez.

Banatu dugu Aratosteetako lehiaketako saria

Astlehenean etorri ziren sari bila ...eta kitto! astekariak Aratosteetarako antolatutako argazki lehiaketako irabazleak. Zozketan sariduna suertatu zen Izaskun Bustindui Maddi alabatxoaren laguntza izan zuen oparia zabaltzeko orduan eta pozarren jaso zituzten kamiseta, liburu, motxila eta beste guztiak. Zorionak!



"Euskañola" hitzaldia ...eta kitto!-n

Martxoaren 26an (martitzena), Pello Etzanizek "Euskañola" izenburuko hitzaldia emango du ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik. Saioa 19:00etan hasiko da, ...eta kitto!ren lokalean (Urkizu, 11 solairuartea). Hizlaria Lizarrako Ikastolako irakaslea da eta, horrez gain, "Tarteko Hizkuntza" ikerketa liburuaren egilea ere bada eta, bere berbetan, "aurkezpena adin guztietarako egokia izango da, interesik izanez gero".



Jose Ramón Iruretagoiena "Izeta II"



Gorka Etxeberria




Joseba Ostolaza "Ostolaza II"

"Harria" argazki erakusketa Topalekuan

Eguaztenean aurkeztu zituen Juan Antonio Palaciosen "Harria" liburua eta izen bereko ikusentzunezkoa Portalean. Eta aurkezpena amaitu eta jarraian, Topalekuan argazki erakusketa zabaldu zuen. Nahi duenak martxoaren 24ra arte izango du ikustera joateko aukera, lanegunetan 19:00etatik 21:00etara eta zapatu eta domeketan, berriz, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara.

Esther Galarzaren lanak Madrilen

Hilaren 4an zabaldu zen Madrilen Emakume Artisten Nazioarteko Elkartearen EmPoderArte erakusketa eta 27ra arte iraungo du zabalik Fuenlabradako Konstituzio plazan. "Mujeres Ilustres, Las Sin Sombrero" izeneko proiektu horretan 28 artistek hartu dute parte, tartean Esther Galarza eibartarrak. Erakusketaren izenburuak ospetsu egin zen 27ko Belaunaldiari egiten dio erreferentzia, baina sasoi hartako emakumeei erreparatu, *"izena hartu zuten gizonetzkoekin batera, orduan bazirelako ere kultur arloan jardun zuten emakumeak"*. Erakusketak erretratu bilduma jasotzen du, "Gizon Ilustreen Galerietakoei jarraituz", pentsamenduaren munduarekin lotutako 33 literaturagile, filosofo, liburuazain, arte-kritiko, arkeologo eta artisten irudiekin, euren artean Margarita Manso, Maria de Maeztu, Maria Zambrano, Menchu Gal eta Rosa Chacel, esaterako.



JUANJO CRUZ GODOY

Idoia eta Nestorren izenean, **ESKERRIK BEROENA**
gure nahigabeen lagundu diguzuen guztioi
eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.

Antzerki Jardunaldiak

UN POYO ROJO Poyo Rojo **komedia**

MARTXOAK 15 barixakua 20:30 Coliseoa



Argentinan hainbat denboraldi eta Hegoamerika eta Australian zehar hainbat bira egin ondoren, zuzenean Frantziatik gurera helduko da Un Poyo Rojo konpainia izen bereko ikuskizunarekin. Dantza eta antzerki fisikoarekin osatutako ikuskizun barregariaren aurrean gaude, gaitasun espresibo harrigarriaz baliatuta. Lanean bi gizon ez ohizko oilar joko batean jardungo dute gimnasio batean, euren indarrak neurtuz borroka arteak, hip-hop, voguing edo balleta bezalako disziplinak garatuta.

MESTIZA Emilia Yagüe **drama**

MARTXOAK 19 martitzena 20:30 Hezkuntza Esparrua

Umore azkar, hitz joko, anakronismo eta eskuhartze musikalez baliatuz, antzezlanak bi pertsonaien arteko elkartzeari garatzen du: Francisca Pizarro Yupanqui adinduna, alde batetik, extremadurar eta inka odola duen lehen mestizoa Espainiako lurra zapaltzen; eta bere bizitzan oinarritutako komedia idaztea nahi duen Tirso de Molina idazle gaztea, bestetik. Elkarrizketa horretan munduaren bi ikuspegi desberdinen arteko alderatzea izango da.



ELE! ELE **drama**

MARTXOAK 21 eguena 20:30 Coliseoa



Cadizeko Ana Salazar kantaorak eta Jon Maia bertsolariak jarriko diote ahotsa ipar-hego fusio atseginari. Jatorrizko musika, irudiak, dantza eta antzerkiak hornituta, ikuskizunak Lorca Andaluziako poeta errepublikazalea eta Lauaxeta euskaldun abertzalearen lana aurkezten digu, desberdintasun kulturalak gainditzen dituzten giza balio sorta bateratua finkatzeko asmoarekin. Biak eremaitasunez eta emozioz betetako poemak idatzi zituzten eta horietako batzuk eskainiko dizkigute ikuskizun zoragarri horretan.

LUDO CIRCUS SHOW Ludo Circus **keinu zirkoa**

MARTXOAK 22 barixakua 20:30 Coliseoa

4 urtetik aurrerakoentzat prestatutako ikuskizunean arlo desberdinetako zazpi artistek ia testurik gabe izaera berezia emango diote umorea eta trebezia batzen dituen lanari. Mota guztietako ikusleentzat gomendatutako pieza da, zirkoa, antzerkia, dantza eta clown generoak biltzen dituen emanaldiak, akrobazia eta malabar bakoitzean erakusten duen moduan. Muntai harrigarri eta dibertigarriak umeendako Ikuskizun Hoberena (Xixonen) eta Zirko Ikuskizun Hoberena (Andaluzian) sariak jaso izan ditu.



GALA **magia**

INTERNACIONAL DE MAGIA

Fábrica de Magos

MARTXOAK 17 domeka 17:00/20:30 Coliseoa

Miguel Muñozek Munduko Magia Sari Nagusia lortu du Koreako FISM 2018 lehiaketan. Mago Marinek TVEko Pura Magia lehiaketaren 1. edizioa irabazi zuen eta Urteko Ikuskizun Hoberenaren Saria jaso berri du. Lebart argentinarrek stand up, pailazoa eta malabarrak uztartzen ditu. Mago Valenek Sari Nazionala du Magia-Mentalismoan eta erreferentzia da Euskal Herriko magiagintzan.





Pinotxo haurrentzako ikuskizuna ELGETAKO Espaloian bihar

Bihar, zapatua, arratsaldeko 17:00etan hasiko da Glu Glu Produktzioaren "Pinotxo" haurrentzako antzezlanaren Elgetako Espaloian. Galder Perez da egilea eta Maitane Zalduiegik zuzentzen du ekitaldia. Sarrerak Eibarko Kultu tabernan eskuratu daitezke edo on line www.kulturhiru.es helbidean. Aurretik erosita 8 euro da prezioa; lehiatilan hartuta, 10 euro.



#Sareartin kontziertuak ONDARROAN

Radix Irratiak antolatuta, domeka arratsaldean, 19:00etan hasita, izango dira kontzertu horiek Ondarroako Portuko Ranpan. Joseba Irazoki & Lagunak eta Norman-ek joko dute. Sarrerak 8 eurotan salduko dira; aurrez erosita, 6 euro.

eguraldia (EUSKALMET.NET)

| Ostirala | Larunbata | Igandea | Astelehena | Asteartea |
|----------|-----------|---------|------------|-----------|
| | | | | |
| | | | | |

hildakoak

- Maximina Palacios Pinedo. 86 urte. 2019-III-6.
- Antxoni Ostolaza Iruretagoiena. 90 urte. 2019-III-7.
- Ignacio Albistegi Goenaga. 64 urte. 2019-III-7.
- Enrique Ezenarro Lopez. 67 urte. 2019-III-8.
- Celestino Rubio Alonso. 78 urte. 2019-III-8.
- Teresa Alconada Macias. 90 urte. 2019-III-8.
- Vicenta Moreno Onandia. 91 urte. 2019-III-11.
- Emilio Arregi Gojenola. 78 urte. 2019-III-11.
- Antonia Baskaran Albizuri. 99 urte. 2019-III-12.

jaiotakoak

- Edrik Barcelo Hernandez. 2019-III-2.
- Sifaw Ait Baha. 2019-III-3.
- Izar Villar Serrano. 2019-III-9.

farmaziak

- Barixakua 15
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
- Zapatua 16
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
- Domeka 17
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
- Astelehena 18
EGUNEZ Morgado (San Agustin, 3)
- Martitzena 19
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
- Eguaztena 20
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- Eguena 21
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
- Barixakua 22
EGUNEZ Lokunberri (Isasi, 31)

GAUEZ BETI - 2019AN-
 Zulueta (San Agustin, 5)

SUDOKUA

AURREKOAREN
 EMAITZA

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 6 | 2 | 1 | 4 | 8 | 7 | 9 | 5 | 3 |
| 3 | 7 | 9 | 1 | 5 | 6 | 2 | 8 | 4 |
| 8 | 4 | 5 | 9 | 2 | 3 | 6 | 1 | 7 |
| 9 | 5 | 3 | 2 | 4 | 1 | 8 | 7 | 6 |
| 4 | 1 | 2 | 6 | 7 | 8 | 3 | 9 | 5 |
| 7 | 6 | 8 | 5 | 3 | 9 | 1 | 4 | 2 |
| 1 | 3 | 7 | 8 | 6 | 4 | 5 | 2 | 9 |
| 5 | 8 | 4 | 3 | 9 | 2 | 7 | 6 | 1 |
| 2 | 9 | 6 | 7 | 1 | 5 | 4 | 3 | 8 |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 9 | 8 | | | 2 | 3 | | |
| | | | | 9 | 7 | 6 | | 8 |
| | | | | 3 | | | | |
| 2 | | 9 | | | | | | |
| | 3 | 7 | 2 | | 4 | 8 | 6 | |
| | | | | | | 7 | | 5 |
| | | | | 7 | | | | |
| 5 | | 4 | 9 | 2 | | | | |
| | | 3 | 4 | | | 9 | 8 | |

telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora.....010
- Udaletxea.....943 70 84 00
- Portalea.....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB.....943 20 38 43
- Epaitegia.....943 03 34 00
- Iberdrola.....900 17 11 71
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.....943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Eibar Ospitalea.....943 03 29 00
- Mendaro ospitala.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia.....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza.....943 53 17 00
- Eusko Tren.....902 54 32 10
- Lurraldebus.....900 30 03 40
- Pesa.....900 12 14 00
- Taxiak.....943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63
- Grupo Egun Bat (Jokazale Anonimo eta Familiak) ...699 37 75 20

Barixakua 15**EKITALDI POLITIKOA**

18:30. Gorka Errasti, Eibarko EH Bilduren alkategaiaren aurkezpena. Juan Karlos Izagirre, Gipuzkoako Ahaldu Nagusirako EH Bilduren hautagaiak hartuko du parte. Eibarko Bizikleta Plazan (euria egiten badu, Portaleko areto nagusian).

ANTZERKI JARDUNALDIAK

20:30. "Un Poyo Rojo" (Un Poyo Rojo). 12 euro (8'50 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseoan.

Zapatua 16**LORE AZOKA**

09:00/14:00. Lore, landare eta zuhaitz azoka. Erakusketa eta salmenta. **11:30.** Tailerra. Urkizun.

ASTELENA PARKEA

11:00/14:00 & 16:30/20:30. 3 euro (EMGE boboarekin doan). Astelena frontoian.

KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30. Jolasteko gunere irekia, Haur Hezkuntzako ume (2-5 urte) eta gurasoentzat. Ipurua kiroldegian.

Domeka 17**GOI-ARGI**

12:00. Urtean zehar hildako bazkideen aldeko meza. San Andres elizan. **18:30.** Urteko batzarra. Jarraian opariaren zozketa eta emanaldia. Goi-Argi elkartearen.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

17:00 eta 20:30. "Gala Internacional de Magia" (Fabrica de Magos). 12 euro (8'50 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseoan.

KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30. Jolasteko gunere irekia, Haur Hezkuntzako ume (2-5 urte) eta gurasoentzat. Ipurua kiroldegian.

Astelehena 18**IKASTEN**

10:00. Antzerkia. Luzatze ariketak. Portalean.

ELKARRETARATZEA

12:00. Jubilatuta eta pentsiodunen elkarretaratzea, pentsio duinak eskatzeko. Untzagan.

Martitzena 19**IKASTEN**

16:00/19:00. Puntu-tailerra. **17:00/20:00.** Joskintza-tailerra. Portalean.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

20:30. "Mestiza" (Emilia Yagüe Producciones). 12 euro (8'50 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Hezkuntza Esparruan.

Eguaztena 20**IKASTEN**

09:11. Ibilaldia: Basauri-Ollagan parkea-Bilbo. Bazkaria eraman. Trenaren irteera ordua, Estaziñotik (**09:14**ean Ardantzatik).

MENDI JARDUNALDIAK

19:00. "El viaje", Juanjo San Sebastianen eskutik. Portalean.

EIBARKO KANTUZALEAK

19:00. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

Eguena 21**IKASTEN**

10:00. "Mendekotasuna heltzen denean: zein da nire aukera?" hitzaldia, M^a Elena Basagoitia Kidal-en (Foru Aldundiko Erakunde Publikoetako zuzendaria) eskutik. Sarrera librea. Armeria Eskolan.

KALEETAN KANTUZ

17:00. Dantza taldearen entsegua (hastapena, beteroenen entsegua 18:00etan hasiko da). **19:30.** Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

ANDRETXEAK 15 URTE

17:00/20:00. "Tupper-sex feminista eta ipuin erotikoak", Inma Merino eta Virginia Imazen eskutik. Portalean.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

20:30. "Ele!" (Ele!). 12 euro (8'50 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseoan.

zineaColiseoan**(1 ARETOAN)**

16an: 19:45, 22:30
17an: 20:00
18an: 20:30

"Una cuestión de género"

Zuzendaria: Mimi Leder

**(2 ARETOAN)**

16an: 17:00, 19:45, 22:30
17an: 20:00
18an: 20:30

"Mula"

Zuzendaria: Clint Eastwood

**(ANTZOKIAN)**

16an: 17:00⁽¹⁾, 19:45, 22:30
17an: 17:00^(1 Aretoa), 20:00
18an: 20:30

"Capitana Marvel"

Zuzendaria: Ryan Fleck

**(ANTZOKIAN)**

16an: 17:00
17an: 17:00^(2 Aretoa)

"Cómo entrenar a tu dragón 3"

Zuzendaria: Dean DeBlois



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, GARAZI Egurrola Mugerza, hillairen 11n 7 urte egin zenduaz-en-eta. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, JUNE, gure panderojole eta eskusoiñularixak hillairen 7xan 9 urte bete zittuan-eta. Etxekuen partez.



Zorionak, ANDER, hillairen 19xan 8 urte beteko dozuz-eta. Amatxo, aitatxo, Jon eta famelixa guztiaren partez.



Zorionak, NEREA Plaza, gaur 12 urte betetzen dozuz-eta! Zu bai neska jatorra! Patxo potolo bat etxekuen partez.




Zorionak, IRAIA, domekan 7 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.




Zorionak, PELLO, atzo 7 urte egin zenduan gurekin-eta, mutil haundi!!! Famelixa guztiaren eta, batez be, Nilen partez.




Zorionak, LUR! Astelehenian 10 urte egin zenduaz-en-eta. Famelixaren partez.



Zorionak, TELMO!, domekan 8 urte beteko dozuz-eta!! Patxuak famelixaren partez.




Zorionak, AMAIA, zapatuan 5 urte egingo dozuz-eta. Musu erraldoi bat etxekuen partez!




Zorionak, ELENE, etxeko poxpolitxo! Gaur 5 urte! Segi holan! Patxo erraldoia danon eta, batez be, Julenen partez.



Zorionak, ANDER Bilbao, gaur 6 urte beteko dozuz-eta. Ondo pasa! Gurasuen eta, batez be, zure arreba Izaroren partez.



Zorionak, XARE, bixar 9 urte egingo dozuz-eta. Ondo-ondo pasa! Famelixa guztiaren partez.




Zorionak, JUNE eta MAIA!, hillairen 18xan eta 19xan 3 eta 5 urte egingo dozuez-eta. Patxo bat Eibarko eta Bergarako famelixaren partez.



Hillairen 10ian gure señorita LOREAk 12 urte egin zittuan eta 19xan GALDER gure fenomenuak 8 beteko ditu. Zorionak famelixa guztiaren partez.



Gora martxoak 5!!! Zorionak, ENKO eta MARTXEL. Patxo erraldoi bana amañatarren partez.



Zorionak, AMAMA, atzo urtiak bete zenduaz-en-eta, eta TELMO etxeko txikixari, eguaztenian 4 urte egingo dozuz-eta!!! Patxo potoluak bixori etxekuen eta, batez be, Maiaren partez!!



Ongi etorri, ADUR, martizenetik gure artian zagoz-eta. Musu bat etxeko guztien eta, batez be, Jareren partez.



Zorionak, aitatxo URTI!! 29 urte beteko dozuz-eta. Zure bi nesken partez. Mara eta Lucia.

i Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako **PREZIOAK**, beti ere **4 ASTERAKO**, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

943 20 09 18
publizitatea@etakitto.eus

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Pisua salgai Julian Etxeberria kalean. 3 logela, 2 egongela, sukaldea eta komuna. 85 m². Kalefakzioarekin. Tel. 615-781231.
- Pisu merkea salgai Santo Domingo de la Calzada erdigunean. Bista ederrak. Kontantzeko. Tel. 675-803734.

1.2. Errentan

- Mutila eskaintzen da bi logela baino gehiago dituen pisua alokairuan hartzeko. Tel. 632-569245.
- Buhardila alokatzen da Txontan. Bosgarren soilaruan, igogailurik gabe. Aukera ona. Tel. 626-144098.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. 3 logelakoa. Tel. 612-201719.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. 2-3 logelakoa. Tel. 627-820417. Dolores.

3. Lokalak

3.1. Salgai

- Plaza bateko garajea erosiko nuke Ubixan edo inguruan. Tel. 680-166507. Javi.
- Lokala salgai Urkizun. 70 m², komunarekin. Arkitektura-estudioa edo aholkularitza bulegoa jartzeko edo hizkuntza-eskolak emateko egokia. 70.000 euro. Tel. 661-377537.

3.2. Errentan

- Garajea alokagai Ipuruko dorreetan. Auto handi baterako. Prezio onean. Tel. 943-700173 eta 608-464144.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 612-449882.
- Emakumea eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko. Tel. 698-343477.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 631-950442.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Ordu-tegi malgua. Tel. 631-619091.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 616-585028.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 632-247910.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 632-872969.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 612-286211.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 658-273486.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 635-189294.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (titulazioarekin) eta garbiketarako egiteko. Tel. 688-818176.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 697-292668.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 632-388279.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 690-134485.

- Emakumea (erizain-laguntzaile ziurtagiriarekin) eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 688-624560.

- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta baserrian lan egiteko. Tel. 674-569736.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 688-735551.

- Emakume gaztea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Ordu-tegi malgua. Tel. 631-833469.

- Emakumea eskaintzen da jendea zaintzeko. Ordu-tegi malgua. Tel. 632-628950.

- Emakumea eskaintzen da jendea zaintzeko. Ordu-tegi malgua. Tel. 632-704643.

- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita asteburuetan ere. Tel. 643-407562.

- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 602-027589.

- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 612-296098.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 664-087760.

- Emakumea eskaintzen da gaez nagusiak zaintzeko. Tel. 632-733573.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 635-587617.

- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-039241.

- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 626-407923.

- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ordu-tegi malgua. Tel. 617-014938.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 632-035973.

- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 943-208107.

- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta kamarera jarduteko. Tel. 616-296731.

- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 612-450354.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-603259.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan eta ospitalean ere. Tel. 631-906590.

- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Ordu-tegi malgua. Tel. 612-374783.

- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Baita gaeuetan ere. Erreferentziak. Tel. 632-098382.

- Emakume euskalduna eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko. Tel. 669-243901.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko garbiketarako. Tel. 631-418130.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 602-082156.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta pegorak garbitzeko. Baita gaeuz ere. Tel. 688-959575.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 650-152866.

- Emakumea eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 643-464072.

- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 643-374471.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ordu-tegi malgua. Tel. 628-529252.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta beste edozein lan egiteko. Tel. 643-398596.

- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta baserrian lan egiteko. Tel. 680-305891.

- Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 612-492519.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-576630.

4.2. Langile bila

- Emakumea behar da Elgoibarren (ahal dela euskalduna) 8 orduz emakume bat zaintzeko. Tel. 660-055073 (eguerditik aurrera). Itziar.
- Pertsona behar da astelheenetik ostegunera (16:30-19:00) bi ume zaindu eta etxeko lanak egiteko. Euskalduna izatea hobetsiko da. Tel. 671-517203 eta 671-548160.
- Saltzailea behar da arratsaldean (lanaldi erdian) lan egiteko. Eraman curriculum-a Closet dendara (Estazioa, 10).

5. Irakaskuntza

5.1. Eskaerak

- 2. Batxilergoko ikasleak ingles klaseak behar ditu. Tel. 634-926030.

5.2. Eskaintzak

- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Akordeoi handia salgai. Modelo zaharra. Tel. 605-711422.
- Hilaren 17ko Magiaren Galarako (17:00etan) zazpi sarrera saltzen dira. 12,60 euro bakoitza. Tel. 669-186674.
- BH Fitness Astra H 286 bizikleta estatikoa salgai. Ia berria. Entrenamendu kardiobaskularrerako pantailarekin. 85 kilorainoko erabiltzailearentzat. 200 euro. Tel. 697-288990.

Logopedak

AHOTS-LAN
LOGOPEDIA-PSIKOLOGIA



Isasi, 17 - 1. esk.
943 202691
ahotslan@gmail.com

Diagnostikoa eta tratamendua

| | |
|--------------------------|-----------------------|
| Degluzio atipikoa | Arreta arazoak |
| Disfonia | Berba arazoak |
| Ikaste-arazoak | Dislexia |

LEHENENGO KONTSULTA DOAN

AROR
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA

----- (Ume eta helduendako) -----

Ana Artamendi

- Afasiak
- Dislexiak
- Disfoniak
- Hizmoteltasuna
- Dislaliak
- Eskola arazoak
- Degluzio atipikoa

T. Etxebarria, 10 - 6. ezk. (BIBAN)
Tel. 943 20 27 15 / 670 82 43 27

Berba
logopedia.

AIDA CORTA ANTÓN

SAN AGUSTIN, 2-4 (B. LOUZA)
Mobila: 622-629-544
logopeda@berba.es

Ebaluazioa eta tratamendua:

- Hizkuntza
- Mintzaira
- Ahotsa
- Dislexiak
- Entzumena
- Degluzio atipikoa

Okulistikak

Oftalmologoak
Centro de Oftalmología Avanzada

JOSE ALBERDI
www.oftalberdi.com

San Juan 11 - solairuartea
943 20 19 82

Recalde
Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinikoa

Miopia ebakuntzak
(femtosekundoko laserrarekin)

R.P.S. 234/13



Plaza Barria 2. 2º. Tel.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com

Podologoak

- Kiropodiak, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak digitalizatuak (scanner bidezko inpresioa)

ELENA AIZPUN
PODOLOGOA
124 kolegiatu zenbakia



T. Etxebarria (DOS DE MAYO), 5 - 1. A
943 12 14 93 / 696 555 208

BIDEBARRIETA, 48
EIBAR
943 203050


ERDIKO KALE 54
ARRASATE
943 799746

PODOLOGOA
Erdiko klinika

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)

PODOLOGOA

Maidier Lopez Etxebarria



Arragueta 2 Bis-B, Behea B
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.

PODOLOGO
T. ORTOPEDICO

Iñaki Rivero Zabaleta

Calbeton, 4 - 2.
(Untzagako dorrea)

Tel. 943 20 86 41

Psikologoak

AMETS
PSIKOLOGIA KLINIKOA
ETA OSASUN ZENTROA

BIDEBARRIETA, 27 - B, 1. solairua, 9. buldogea
www.centroamets.com

Coro Ortíz de Urbina - Master Praktika Klinikoa
PSIKOLOGOA (G201987 kolegiatua) - Master P.N.L.
Tel. 675 70 68 07 - Trainer

PSIKOTERAPIA ZENTRUA

HAUR, NERABE ETA HELDUENTZAKO PSIKOTERAPIA

943 20 22 66
Bidebarrieta, 27-B, 1º 3 atea
www.arratepsicoterapia.com

Lorena Izaguirre Garcia
PSIKOLOGOA-PSIKOTERAPEUTA

Errebal, 15 - 1. ezk.EIBAR
Zuberoa, 4.....ZARAUZ
Tel. 943 831 618

Psikologia klinika eta
Psikoterapia zentroa

Oscar Mondragon Lili
GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ
Urkizu, 13 - behea
Telf. 943206823 eta 686859023

Tf. 686 85 73 22
moreno_iciar@yahoo.es

Itziar Moreno
PSIKOLOGOA
KOLEG. ZKIA. 1947

GIZENTASUNA ANTSIETATEA AUTOESTIMA ARAZOAK

☎ 943 12 02 00 **ORBEAKO DORREETAN**
URKIZU, 13 - 1.

centro médico eibar

Psikoterapia

R.P.S. 32/17

FUB
PSIQUIATRIA / PSICOTERAPIA / ALFA EIBAR

FERNANDO URIZAR BARANDIARAN

Medikuntza Psikiatrikoa

Ego Gain, 18 - 1 A (Eibar)
615 71 54 04

Bailen, 9 - 1. ezk. (Bilbo)
94 416 49 06
furizar1@yahoo.com

Esku onetan egotearen ziurtasuna.

20.000tik gora paziente pozik.
Etorri eta egin irribarre berriz ere.



20 urte baino gehiago zurekin.



Profesional talde handi bat zure
irribarre zaintzen.



Zure irribarre onena geure
laborategian diseinatzen dugu.

R.P.S. 123/17



bista eder
clinica dental - horts klinika

Deitu | 943 70 00 82

bista eder, 19 - bajo 20600 eibar
www.bistaeder.es